

Arrasate

PRESSA

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko maiatzaren 10a / 584. zenbakia

Kasino elkartea

ANTZINAKO ELKARTE HORREK
EGOITZA ALDATUKO DU



ORAIN ETA HEMEN: CERRAJERAKO URBANIZAZIO PROIEKTUA/8 • KIROLA: GIMNASIAKO FINALA/16

Edertasunaren Gida

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

SUSI

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

**[I
L
E
A]**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Jose Antonio

GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Ótatora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

EDERTU

Ileapaindegia

Zutikako
eta etzandako
solariuma
10 saio 40 €

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • ARRASATE

Lore

Olatz, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA Ñ NEAL Ayer HR CLARINS PARIS BIOTHERM VALMONT

aitor


Gizonezkoen ile apaindegia

Otatora, 14 • 20500 ARRASATE


Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

Gida honetan azaltzea nahi baduzu, deitu ezazu 943 71 23 91 telefono zenbakira.

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu kiroldegiko abono-sistema barrixe?



JON BARRUTIA
Langillie



LUIS OROBENGOA
Jubilaue



ISIDORA CASTELLO
Langillie



KONTXI VITORIA
Langillie



PATXI ARRATIBEL
Langillie



JUNCAL GARAI
Langillie

Neu lehengo moduen nabil; hortaz, ezin dot gauza handirik esan. Barruko igeri-lerkure jueten naz igeri apur bat egittera, eta oso gustora nabil. Saunie hasieran ibiltten neuen; oin, ez.

Neu igeri egittera jueten naz, eta ez dot diferentzia haundirik ikusi. Dirue kontutik pasau dustie, eta hortxe be ez dau diferentzia haundirik. Hala eta be, ez naz larregi jueten.

Neuk lehengo moduen ordaintetan dot. Mantienmenduko gimnasia egittera jueten naz, eta ez dot aldaketa haundirik ikusi. Lanak egin dittuenetik, kiroldegixe ondo geratu da.

Neu bardin-bardin geratu naz. Nik zona hezie elegidu neuen, eta gustora nago daukeda zerbitzuarekin. Obrak egin dittuenetik, kiroldegixe beste bat da. Oso ondo dago.

Neu ez nitzen aldaketakin ohartu, eta zona sikure juen nitzenien, ez eustion itxi hara pasetan. Eta bi zonak hartzeko gehixago ordaindu biher dot; hortan, lehen hobeto.

Sistema barrixe oso ondo dago. Aukerie emuten dau zona hezie edo sikue elegiduteko. Txarrena da zona bixek gure izen ezker, gehixago ordaindu biher dala.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZABORREKIN BUELTAKA Berriro ere zaborra aipatu beharrean gaude. Oraingoan, Makomunitateak eskatuta. Izan ere, jakinarazi digunez, nahiz eta edukiontziak bete barik egon, jende askok zaborra kalean botata uzten du, edukiontzian sartu beharrean, eta jakina; zaborra ateratzeko egunak eta orduak errespetatu barik. Azken baten, horren irudi eta usain txarrak guztiok jasaten ditugu.

ASTEKODATUA

100

APARKALEKU GARAGARTZAKO FAGORREDAKO

Ehun aparkaleku egingo dituzte Fagorrek Garagartzan duen lantegiaren eta auzoaren artean. LKS enpresak egin duen proiektuak 232.123,92 euroko aurrekontua izango du.

BESTEKEESANA

“Nire burua dantzari moduan aurkezten dut, baina ez naiz dantzaria sentitzen. Dantza ikasi dut, baina ez dakit dantzaria naizen (...) Ni dantza ikasten berandu hasi nintzen, hogei urte nituenean, eta zazpi urte daramatzat. Orain ikasten nabilen eskola, Amsterdameko Dantza Berriaren Garapenerako Eskola da. Eskolakook zure istorioa sortzen bultzatzen zaituzte, dantza egiteaz gain, zuzendaritza eta koreografia arloak ere lantzeraz (...) Ni betidanik oso kirolaria eta energetikoa izan naiz, eta dantzaren bitartez nire energia modu sortzaile baten bideratzea bururatu zitzaidan. Horrez gain, Euskal Herriatik irteteko gogoia neukan, kanpoan ikasteko aukera gehiago daudelako eta kanpokoa ezagutzearren”

SAIOA IBÁÑEZ
‘EL DIARIO VASCO’/02-05-03

HERRITARRENBERBAK/ Antxon Mendizabal



Batasunaren ilegalizazioa

Batasunaren aurka gogor ari dira. Ez da soilik Garzonen erokeria berria. Ezta ere pluraltasun demokratikoren aurkako eraso soilik. Askoz grabeagoa eta sakonagoa da. Helburu politikoak gaztigitzen dituen alderdien legez, elkarbizitzarako oinarri politikoak legez kanpo uzten ditu.

Batasunekoen atxiloketak Espainiako Estatuaren inteligentziak planifikatutako ekintza berriaren barnean kokatu behar ditugu.

Estrategia eta logika kontrainsurgentean kokatzen den aurrerapauso kualitatiboa.

Trantsizio politikoari dagokion borroka dugu. 25 urtean trantsizio politikoan egon den egiazko disidentzia (frankismoaren kontra benetan borroka bakarria egin zuena), ezker abertzalea, ezabatu gura dute. Alderdi popularrak eta alderdi sozialistak eragileak izanik, Espainiako inperialismoak frankismoa legezatu

gura du. Bagenekien demokrazia hau faltsua zela, baina demokrazia izena aho handiaz erabiltzen dutenek, mozorroa kenduz gero, betiko faxistak direla erakusten digute.

Kontrainsurgentziaren jarduerak, epe motzean, bi norabide ditu: batetik, Batasunaren aurkako errepresioarekin erakunde horren politika neutralizatu gura dute; bestetik, ezker abertzale deskafeinatu bat sortu gura dute.

1977ko hauteskunde-ekiko, Euskal Herriaren zatiketa-erikiko eta herri

zapalduen borrokaren garaiko ezker abertzaleak eduki zuten hastapen ideologikoak aldatuko lituzkeen ezker abertzale berria.

Zorionez, bidea aurreratu dugu. Demokrazia fartsa horren aurrean, askok badakite Autodeterminazio eskubidea dela askatasunaren atea, demokraziaren leihoa, elkarbizitzaren oinarria, oinarritzko giza eskubideak eta bakea bermatuko lukeen bakarria.

“Ezker abertzale deskafeinatu bat sortu gura dute, hastapen ideologikoak aldatuko lituzkeen ezker abertzalea”

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7	KIROLA / 12	GAZTEAK / 20
Roneko emisioen analisia	Pilotan, ezin aurrera egin	Bigarren Eskuko Azoka
Udalak hiru hilabete eman dizkio Roneori lantegiko tximinetako emisioak aztertzeko.	Arrasatek ezin izan du Herri Arteko Txapelketako lehenengo kanporaketan aurrera egin.	Gaztetzeko batzarrak Bigarren Eskuko Azoka antolatu du asteburu honetan Seber Altuben.

Arrasate PRESS
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Euskal Jaurilitzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 10
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15

ZAPATUA, 11
Azkoaga, Iturriotz..... 943 79 22 26

DOMEKA, 12
Corcuera, M.Aranbarri 1..... 943 79 22 26

ASTELEHENA, 13
Irizar, Erquin 11..... 943 79 12 39

MARTITZENA, 14
Amezua, Santa Marina 32..... 943 79 09 74

EGUAZTENA, 15
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30

EGUENA, 16
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

TELEFONOJAKINGARRIAK

ERITXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Iguatorialdea..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea..... 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak..... 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak..... 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate..... 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea..... 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monteiron..... 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ZIGORROLAKO JAIK
San Isidroak hasi dira, eta egitarau zabala antolatu dute zigorrolarrek. Gaur, Erretiratuen Eguna ospatuko dute; hala, auzoko erretiratuek afora egingo dute Kataiden. Horrez gain, Izurri Berria eta Fundiziyue taldeek kontzertua emango dute 23:00etan. Bihar, Koadrilen Eguna ospatuko dute, herri bazkari, sokatira eta dantzaldi eta guzti. Domekan, hainbat ekitaldi izango dira, eta martitzenean, San Isidro Eguna ospatuko dute.

JON AGIRREREN ALDE

Aramaioko Jon Agirre presoaren aldeko kale bilkura deitu dute gaur, egubakoitza, 19:30ean, Musakolako Hostalaren ondoan.

EGUENETAKO ZINEKLUBA

Eguenean, maiatzaren 16an, 21:30ean, Amaia Udal Antzokian, *La espalda del mundo* filma emango dute.

1952KO KINTOAK

Hilaren 18an, 1952ko kintoek (1931n jaiotakoek) bilkura egingo dute. 13:00etan, San Juan Bautista elizan meza izango dute, eta 14:30ean, bazkaria batzokian. Angel Domínguez, Paco Bonet edo Rafa Fernández-engana jo.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA

AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIK

AEDk auzolandegek antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erquin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.I. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erquin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

'Pedrotxo' eta Zabarte gose greban Salto del Negron

Jesus Mari Zabartek eta Pedro Guridik gose greba egin zuten bigarren aldiz, Salto del Negro-ko espetxeko beste preso batzuekin batera. Aurrez, 42 egun igaro zituzten jan barik. Gerora, espetxeko zuzendaritzak agindutakoa bete ez eta berriro ekin zioten gose grebari.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kaskaillua"

Handia eta ergel samarra.

-Ermentarixan kriauakin ein jua burrukan: aundi kaskaillu bat..



HAUGIROA!

MINIMOA 6°C
Astelehena, 6


MAXIMOA 16°C
Eguaztena, 1

ASTEKO EURIA (l/m²) 81,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	16°C	10°C	9,6 l/m²
Eguena, 2	12°C	7°C	25,8 l/m²
Egubakoitza, 3	12°C	6°C	24,9 l/m²
Zapatua, 4	13°C	6°C	2 l/m²
Domeka, 5	16°C	7°C	10,4 l/m²
Astelehena, 6	12°C	6°C	0,2 l/m²
Martitzena, 7	13°C	10°C	8,7 l/m²

Bargarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



EITBren egoitza aldaketa hizpide

EITBko instalazioak Bilboko Erakustazokara aldatuko dituztela-eta, hori hizpide izan dugu eguaztenetan eskaintzen dugun telebistaren tartean. Zapatuan eta domekan elkarrizketa hori berriro entzuteko aukera izango da. Langile batzuk ez daude aldaketa horrekin ados, besteak beste, Ander Oriden, ETBko langile aretxabaletarra. Bestalde, Zeelanda Berria, Australia eta Thailandia bisitatuko ditugu Aimar Elortzaren eskutik. Thailandia gustatu zaio gehien.

Martitzenean, San Isidro eguna

Datorren martitzenean San Isidro Eguna dela-eta, Musakolara hurreratuko da Arrasate Irratia. Egun hori ospatuko duten baserriarrek egingo dugu berba, 11:30ak inguruan. Bestalde, astelehenean, 10:00etan, senar-emazteen banaketak izango ditugu hizpide Ana Mozos abokatuarekin. Gero eta bikote gehiago banatzen ote den, eta arrazoiak zeintzuk diren galdetuko ditugu abokatuari, bai eta banatzeko prozesua zelakoa den ere.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
20:30 Iluntzean berriketan
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa -
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Institutuan, ospakizunen amaiera

Zapatuan lehengo eta oraingo ikasle eta irakasleak elkartu ziren Arrasate-Aretxabaleta Institutuak Arrasaten duen egoitzan. Horrela, Vicente Guinea, orain 25 urteko zuzendaria, Ramon Osinaga, oraingo zuzendaria, eta Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkatea izan ziren, besteak beste. Gero, Big Band taldeak musika saioa eman zuen eta urteurreneko oroigarritzko plaka inauguratu ondoren, luntxa izan zuten.

Horrez gain, aipatu beharra dago joan den egunean Institutuak ISO 9002 ziurtagiria jaso zuela. Ziurtagiri hori kalitatezko heziketaren erakusle da. Ziurtagiria jasotzeko ekitaldian, besteak beste, Iñaki Mujika Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendaria eta Luz Enparantza AENORreko ordezkaria izan ziren.

AHTren aurkako mahai-ingurua

Abiadura Handiko Trenaren kontrako mahai-ingurua izan zen Arrasaten joan den egunean. 30 bat lagunek esku hartu zuten solasaldian. Hasi aurretik, bideo emanaldia izan zuten, proiektuaren nondik norakoak aditzera emateko. Ikuspuntu asko jorratu zituzten; adibidez, guztiek bat egin zuten esatean AHT oso kaltegarria izango dela baserri-errendako. Bestalde, ekainaren lerako mendi ibilaldia antolatuta dutela ere iragarri zuten.

Senitartekoen topaketak

XVII. Senitarteko Topaketak egin zituzten zapatuan Aita Menni ospitalean; eta izan zuten, bai, zer ikusi eta zer dastatu parte hartu zuten gaixoei eta senitartekoei. Besteak beste, meza entzun zuten, Arrostitz dantzataldearen saioa ikusi eta Al-Andalus elkarteko kantarien doinuekin gozatu zuten. Horrez gain, Extremadurako, Galiziako eta Andaluziako jakiak ere probatu zituzten.



Banco Guipuzcoanori eraso egin zioten

Egubakoitzean, eta Batasunaren kontra Garzonek zabaldutako polizia operazioaren kontrako manifestazioa bukatu eta gero, kale istiluak izan ziren Arrasaten. Lekukoan esanetan, gau partean egin zuten eraso, eta suhiltzaileak eta Ertzaintza etorri behar izan ziren.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Otsoak, ardiak eta...

Frantziako Estatuko hauteskundeek erruz, Europar ultraeskuindarren inguruko argi gorria piztu da. Ultraeskuina satanizatze joera dagoen arren, horien eta eskumaren antzekotasunak handiak dira. Are gehiago, eskumako alderdiei on egiten die ultraeskuindarrak egotea, horiek eskumakoak baino gaiztoagoak direla esateko.

Helburuak antzekoak dituzte, itxurak zaintzen dituzten arren.

Le Pen-en alderdia ez da botoetan hainbeste igo, baina abstentzioa asko hazi da. Gainera, ezkerre deritzonak sinesgarritasuna eta botoak galdu ditu. Le Pen-en taldea, ordea, mantendu, eta proportzioan botoetan igo egin da. Hauteskundeek azken txanpan, Le Pen-en

aurka egiteko, askok botoa Chirac-i eman diote, eskumari. Bestela, ez liokete botorik emango. Orain, Chirac-i kontuak eskatuko dizkiote, politika ezkertiarra egin dezan, berari ez dagozkion botoak jaso dituelako.

Hemen ere antzekorik bizi izan dugu. Irabazi zutenek denbora izan dute testuinguruari -otsoa dator!- esker, jasotako boto guztien erantzule egiteko. Baina otsoari beharrez, ardiei barre egiten dihardute.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

KULTURA ETXE BERRIA ETA KULTURA ETXE ZAHARRA

Ospitale Zaharreko atea hormigoiarekin itxita ikusteak esanahi berezia dauka askorendako. ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebista han jaio ziren, adibidez. Egun, Udalak kultura etxe berriaren proiektua esku artean dauka eta laster lanak hasi gura ditu. Hala ere, paradoxikoa da: duela urte batzuk

Ospitale Zaharraren eraikinean, gaztetxeak bere baitan hartu dituen ekimen guztiez gain, adin eta mota askotako artistek lantegiak zituzten, hainbat musika taldek han entseatzen zuten, baita ere DJek, trikitilariak, txalapartariak eta beste askok. Egun, badute egoitza propiorik haiek guztiek? //B.

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegioko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

arbolapeta

beinke

arrasate

GIZARTEA/Kasino elkarte gastronomikoak egoitza aldatuko du laster

Kasino elkarteak Erdiko Kaleko egoitza zaharra utzi eta Iturriotz kalera joko du

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Kasino elkarteak egoitza aldatuko du laster. Izan ere, Erdiko Kaleko betiko egoitzaren zati bat ordenazioz kanpo dago, eta Udalak pasabide bat egin gura du han. Hori dela eta, beste egoitza bat erosi dute, Iturriotzen, eta zaharra saldu guran dabilta.

Erdiko Kalean kokatuta dagoen Kasino elkarteko zati bat -jangelak eta sukaldea, hain zuzen ere- ordenazioz kanpo dago. Hala jakinarazi zion Udalak Kasinoko batzarrari. Era berean, 2000. urteko urtarrilean Udalak Kasinoko batzarrari jakinarazi zionean Arrasate pasealekutik Ferrerías kaleraino pasabidea egin gura zuela, Kasinoko batzarkideak konturatu ziren arazoa zelabait konpondu beharrean zeudela. Kasinoko batzar nagusian, arazoaren garrantzia nabarmendu eta egungo egoitzaren etorkizuna beltza zela ondorioztatu zuten.

Azken baten, Udalak eskutatako proiektu zehatza betetzen saiatuz gero, oso gaitza zen ibilerraztasun baldintzak eta antzekoak betetzea. Era berean, batzarkide batzuek proposatu zuten egoitza berean jarraitzea, konponketa eta lan batzuk eginda, egungo jangela eta sukalde barik. Edozelan ere, bazkide gehienak Kasinok gaur egun dituen zerbitzu guztiekin eta tamainarekin ohituta daude. Horregatik, gura go izan zuten egungo egoitza utzi eta beste bat eskuratzea.

TAMAINA HANDIKO EGOITZA BERRIA

Kasinoko batzarrak eta Udalak adostutakoaren arabera, Udalak Kasinori ordenazioz kanpo zegoen 90 metro koadroko zatia -jangela eta sukaldea- erosi zion. Gainerako zatia -160 metro koadro: taberna, telebista dagoen egongela, komunak, hall-a eta kartetan edo billarrean egiteko egongela- Kasinoko batzarraren eskuetan gelditzen da. Ondorioz, Kasinoko batzarra partikular batzuei saltzeko tratuetan dabil.

Bestalde, Kasinoko batzarrak erosi du dagoeneko egoitza berria izango den lokala, baina lan guztiak egitea falta da. Kasino elkarteak, hortaz, Iturriotz eta Zerkaosteta kaleen artean kokatuta egongo da, sasoi baten Viguri denda kokatuta egon zen lekuan. Dena dela, batzarreko partaideek adituz eman digutenez, egoitza berriak 200 metro koadro inguru izango ditu, orain arteko egoitzaren antzera.

Horrez gain, egoitza berriak orain arteko elkartearen zerbitzu eta aukera antzekoak izatea helburu dute batzarkideek. Iturriotz kalean egingo duten elkartearen



Egungo Kasinoko jangela eta sukaldea ordenazioz kanpo daude, eta Udalak hortik igaroko den pasabide bat eraiki gura du. Horregatik saldu dute.

Egungo jangela eta sukaldea ordenazioz kanpo daudela-eta, beste egoitza bat erosi du Kasinok

planoak eginak daude dagoeneko, baita lanen proiektua ere. Une honetan, Arrasateko Udaleko Hirigintza Sailaren oniritziaren

Kasino berria Iturriotz eta Zerkaosteta artean -lehenengo Vigurin- egingo dute

zain dago proiektua, eta Kasinoko batzarkideek ez dute gura izan lanen bukaeraren inguruko data-rik eman, badaezpada.

Egoitza berriaren planoak eta proiektuak eginda daude. Udalaren oniritzia falta da

Kasino berriaren ere sukaldea, jangela, taberna, kartetan egiteko mahaiak, komunak eta biltokia edukiko dituzte; hori bai, bes-

te modu baten banatuta. Are gehiago, jangela berriak 80 lagunen lekua izatea espero dute. Esan beharra dago egoitzaren aldaketa ordaindu ahal izateko bazkide bakoitzak diru-ekarpen jakin bat egin beharko duela datozen hilabeteetan.

Dena dela, Kasinoko bazkideek aspalditik dakite diru-ekarpena egin beharko dutela, baina oso bazkide gutxi utzi diote Kasino elkarteko bazkide izateari. Penarekin baina, gogotsu daude Kasinoko bazkideak.

Mende bateko historia duen elkarteak

Abaroako adituen esanetan, Kasino Viteri elkarteak 1902. urtean zabaldu zuten, Viteri Fundazioak bultzatuta, Viteri Eskolarekin ia batera. Hasieratik, jauntxoak eta dirua zeukatenak batzen hasi ziren: Iginio Resusta Madinabeitia -Maixortxo-ren semea-, Ricardo Añibarro, On Alberto Ubago sendagilea, Martin Arexolaleiba Dontxo, eta Cerrajeru Guipuzcoanako eta beste enpresa batzuetako jabeak ere. Horietako batzuk abertzaleak ziren, eta batzuk abadeen aurkakoak ere. Ezagun da, sasoi hartan, XX. mendeko lehenengo urteetan, Kasinoko batzuek On Tiburcio Satarain parrokoari harriska egin ziotela.

Sasoi hartan, Erdiko Kaleko Kasino Mondragon elkarteak jai eta dantzaldi mordoa egiten zituzten, eta gutxi batzuk bakarrik sartu ahal

izaten ziren barrura. Are gehiago, adituek diotenez, Bilboko San Franzisko eta Cortes inguruetakoa neskatxak ere ekartzen ei zituzten, batzuetan, Kasino Viteriko jaietara.

Gerora, gerra denboran, falangistek Kasinoren zati bat euren dako hartu zuten, orain sukaldea dena, hain zuzen ere, handik alde egin zuten arte.

50eko hamarkadan, ordea, Robustiano Zarrakoak etxe osoa erosi zuen. Ordurako, Kasino Mondragon izena zeukan. Hori ikusita, Juan Periko Azkoagak Kasino Mondragon elkarteko solairua erosi zion Robustianori, garai hartako 500.000 pezetaren truke. Diru kopuru horren erdia bazkideen diru-ekarpenekin batu zuen eta gainerakoa Juan Periko Azkoagak berak jarri behar izan zuen,

beste batzuei eskatuta. Juan Periko sosik barik eta zorretan gelditu zenez, Pablo Garairengana jo zuen, hark lagun ziezaion. Kasino elkartearen atezainik jarri ezean, bazkideak lortuko zituztela esan zion, eta batzar batera deitu zituzten interesatuak. Lagun berriekin, batzarra eratu eta Juan Perikok zorrak ordaindu zituen. Batzar berriaren, Juan Periko Azkoagaz gainera, Jose Luis Isasak, Juanito Olalde eta beste batzuek hartu zituzten ardura garrantzitsuenak.

Horrela, Kasino Mondragon elkarteko ateak bazkide egin gura zutenei zabaldu zizkieten, eta horrela jarraitu du gaur egun arte. Orduko bultzatzaileek, ordea, penaz hartu dute egoitza aldaketaren albistea, eta ez dute ikusten beharrezko Udalak egin gura duen pasabidea.


Roneok hiru hilabete ditu lantegiko tximinietako emisioak aztertzeko

UBANE MADERA

Arrasateko Udalak hiru hilabete eman dizkio Roneo lantegiari tximinietako emisioak aztertzeko. Airearekin batera ustez pintura partikulak botatzen dituela-eta, salaketa bat jaso dute Udalean.

Kataideko industrialdean dagoen Roneo lantegiaren kontrako salaketa bat jaso dute Udalean. Horren arabera, lantegiko tximinietatik irteten den aireak pintura hondarrak ditu. Eta pintura hori, tximinietatik gertu apartakuta dagoen autoen gainean geratzen ei da, hauts moduan, baina garbitu ezinda, autoari kalteak eraginez. Kaltetuetako batzuek adierazi digutenez, orain dela pare bat urteko arazoa da, eta behin baino gehiagotan lantegiari berari salatu izan diote egoera, eta tximinietan filtro berriak ipintzeko eskatu. Baina Roneok ez ei die jaramonik egin eta arazoak bere horretan segitzen duela diote.

Jose Angel Barrutiabengoa Roneoko Lan Segurtasun eta Prebentzio arduradunak, berriz, adierazi digu lantegiko tximinietan ez dagoela arazorik. Bai, ordea, tximinietatik irteten den aire hori



Tximinietatik pintura partikulak irteten direla salatu dute.

pinturaz garbitzeko erabiltzen duten sistemarekin. Barrutiabengoa adierazi digunez, pareko lantegikoek abisatu zieten jakin izan zuten tximinietatik pintura partikulak irteten ari zirela. Gaineratutakoaren arabera, orain dela lau bat urte ere arazo bera izan zuten. Baina konponbide erraza du eta dagoeneko konponduta dagoela jakinarazi digu. Edozelan ere, berriro ere antzekorik ez gertatzeko neu-

rriak hartuko dituztela gaineratu digu Jose Angel Barrutiabengoa. Eta, jakina, Udalaren eskerari jaramon eginez, orain tximinietako emisioa zaintzeko azterketa egingo dutela ere adierazi digu.

Orain dela gutxi, Fagor Ederlanen ere antzeko arazo bat izan zuten eta Udalak lantegiaren emisioak aztertzeko agindu zuen. Eta emaitzek erakutsi zuten egoera normala zela.

LABUR

2002. urterako dirulaguntza deialdia zabaldu du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak

Udaleko Emakume Sailak 2002. urterako dirulaguntza deialdia zabaldu du. Emakumezkoek zuzendutako ekintzak bultzatu gura dituzte ekimen horrekin; ondorioz, emakume taldeendako deialdia izateaz gain, edozein elkarte motak eska dezake dirulaguntza, baldin eta emakumezkoek zuzendutako ekintzak edo emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko ekintzak egin badituzte. Dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 24an bukatuko da. Interesa duenak Emakume Saileko teknikariarengana jo beharko du, baita informazio gehiago gura duenak ere.

Urritasun fisiko eta sentsorialak dituztenenako opor egitaraua

Urritasun fisiko eta sentsorialak dituzten pertsonen zuzendutako opor egitaraua antolatu du Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak, Gizartekintzaren laguntzarekin. Bereziki, urritasun handiagoko duten eta mugikortasun arazo latzak edo bestelako ezintasunak (diru sarrera eskasak...) dituztenek lehentasuna izango dute. Benidorm, Salou, Peñíscola, Kuba, Mallorca, Tenerife eta beste hainbat leku izango dituzte aukeran. Maiatzaren amaiera aldera hasita, urriaren bukaerara arteko txandak izango dira. Oro har, zailtasunak dituen 16 urtetik gorako edozeinek egin dezake opor egitarau horretan parte hartzeko eskaera, betiere, gaixotasun larrik ez badu eta osasun zerbitzu berezien beharrik ez badu. Horrez gain, ibiltzeko edo norberaren beharrik asetzeko beste pertsona baten laguntza behar duen eskatzaileak pertsona hori izendatu beharko du eta laguntzaileak bere bidaia ordaindu beharko du, eskaintzen den prezio-taularen arabera.

Ustez lapurretan egin duten hiru gazte atxilotu dituzte



UBANE MADERA

Domeka goizaldean sartu ziren Basilio tabernan, ateko hiru sarrailak apurtuta.

UBANE MADERA

Ertzaintzak hiru gazte atxilotu ditu, ustez Deba eta Urola ibarretan bederatzita lapurreta egitearren. Barne Sailaren esanetan, besteak beste, Musakolako Basilio tabernan egin zuten lapurreta.

Ertzaintzak 20 urteko X.O.F. eta 22 urteko J.G.G. oiartzuarrak eta 24 urteko A.J.H. irundarra atxilotu zituen, ustez Deba eta Urola ibarretan lapurreta egiteagatik. Besteak beste, domeka goizaldean, Musakolako Basilio tabernan sartu zirela dio Ertzaintzak, hiru gazteei Arrasateko tabernatik lapurtutako loteria

dezimo bat atzeman diete-eta. Basilio tabernako ugazabak adierazi digunez, sarrerako atekak dituen segurtasuneko hiru sarrailak apurtuta sartu ziren. Gero, barruan, txikizioak eragin zituzten eta jolas-makinako dirua lapurtzeaz gain, tabernako dirumakina eta txanpon ugari eraman zituzten. Edozelan ere, Ertzaintzak oraindik ez du berreskuratutako gazteok lapurtutako guztia.

Barne Sailak emandako datuen arabera, A8 autobideko Zarauzko ordainlekuan atzeman zituzten hiru gazteak. Arrasatez gain, Bergarako, Elgetako eta Eibarko zenbait lekutan ere egin ei zuten lapurretan, eta Antzuolan eta Zumarragan saiatu ziren.



Edukiontzia hutsik egonda, kalean uzten dituzte zaborrak

Zaborraren arazoarekin bueltaka segitzen dugu. Behin baino gehiagotan salatu izan dugu jendeak zaborra edukiontzien kanpoan uzten duela. Are gehiago, hori dela eta, Arrasateko Udalak, adibidez, edukiontzia gehiago ipintzeko eskatu dio Debagoieneko Mankomunitateari. Baina, Mankomunitateak adierazi digutenez, irtenbidea ez da edukiontzia gehiago ipintzea, izan ere, eta edukiontzia hutsik egon arren, jendeak haren kanpoan uzten du zaborra. Oraingo astean ere, esandakoa egiaztatu ahal izan dugu Otalora Lizentziaduna kaleko edukiontzietan. Eguazten arratsaldean, eta edukiontzia erdi hutsik zegoela, zaborra zegoen kalean. Hortaz, eta horrenbeste eskatutako edukiontzia ipini arren, badirudi oraindik jendea kontzientziatu beharra dagoela. /UM

Cerrajerako urbanizazio proiektua eta Fagor Garagartzakoa, onartuta

UBANE MADERA

Oraingo asteko Gobernu batzordeak Arrasaten egin beharreko urbanizazio proiektu bi onartu ditu: batetik, Cerrajerako etxebizitzena, eta bestetik, Garagartzako Fagor lantegian egin beharrekoa. Orain, proiektu biak jendaurrean daude, alegazioak batzeko.

Cerrajera inguruak urbanizatzeko LKSk egindako proiektuari onospena eman dio Arrasateko Udalak. Cerrajeran eraikiko dituzten babes ofizialeko etxebizitzendako eta leku berean eraikiko dituzten negozio ekonomikoendako eta bestelakoendako zerbitzuak ematea zehazten du proiektu horrek: errepideak, pasabideak, ura, elektrizitatea, saneamendua eta antzerakoak. Guztira, 4.701.097 euroko aurrekontua izango dute lan horiek guztiak egiteko.

Oro har, CEI-Saiolanetik hasi eta Eskualde Ospitalerainoko zatian egingo dituzte lanak, bost zatitan. Ura, saneamenduak eta bestelakoak sartzen ekingo diote eta gero, babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzten gunean segituko dute. Horrela, CEI-Saiolaneke eraikinera heldu arte.



UBANE MADERA

Bost zatitan egingo dituzte lanak, CEI-Saiolan dagoen erakinera iritsi arte.

Hain zuzen ere, eraikin hori botatzea izango da bukaerako lanetariko bat. Eta orain, proiektua jendaurrean izango da hamabost egunez, alegaziorik izanez gero, horiek jasotzeko.

FAGOR GARAGARTZA

Bestalde, Garagartzako Fagor lantegian egin beharreko urbanizazio lanen proiektua ere onartu du oraingo asteko Gobernu batzordeak. 232.123 euroko aurrekontua

zehaztu dute lanok egiteko. Berezi, aparkalekuak egiteko proiektua da. Hain zuzen ere, lantegiarren eta auzoaren artean ehun bat aparkaleku publiko egitea pentsatu dute. Horrez gainera, Fagorrerako errepidean ere lanen bat egingo dute, ibilgailuen eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Era berean, eta lan horiek aprobetxatuz, han dagoen argindarraren kablea, kanpotik doana lur azpian sartuko dute.

Arrasateko euskalgintzak finkatu ditu zeregin nagusiak

U.M.

Bai Euskarari egitasmoaren barruan, Arrasaten euskararen erabilera normalizatzekeko planak aurrera jarraitzen du. Euskalgintzaren plan estrategikoan lanean ari den taldeak finkatu ditu zeregin nagusia eta aurrera begira lortu beharreko helburuak.

Euskararen aldeko taldeak adostu duen zeregin edo helburu nagusia honakoa da: "Elkarrekin Arrasateko esparru guztietan euskaraz normaltasunez bizi izateko aukera bideratzea eta lortzea". Behin hori erabakita, euskalgintzaren barruan lanean diharduten talde bakoitzak helburu orokorak zehaztu eta gero, talde handian datozen lau urteotarako helburu nagusiak erabaki zituzten.

ARLO ESTRATEGIKOEN EUSKALDUNTZEA

Hau da, batetik, Arrasateko euskalgintza gorpuztu eta artikulatu gura dute, guztien artean sinergiak eta plan bateratua lortzeko; bestetik, gizarteko arlo estrategikoak euskalduntzeko plana egingo dute (berezi, irakaskuntzako helburu batzuk eta etorkinen gaineoak kontuan hartuta); gizartean euskararen ezagu-



UBANE MADERA

Ahalik eta hizkuntza kalitate handiena lortu gura dute euskalduntze prozesuan.

tza bermatzea eta erabilera sustatzea da euskalgintzaren beste helburuetako bat; betiere, ahalik eta hizkuntza kalitate handienarekin. Hirugarren puntu horretan irakaskuntza, arlo sozio-ekonomikoa, komunikabideei dagokiona eta ume eta gazteena zainduko dute, berezi. Eta, bukatzeko, herritarrek euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokiera baikorra eta aktiboa izatea lortu gura dute.

HURRENGO PAUSOAK

Horrela, azken bi asteotan, erakunde bakoitzaren helburuak lortzeko datorren ikasturtean egin beharrekoak aztertuko eta zehaztuko dituzte, gero Emunera bidaltzeko. Eta, ekainaren 5era bitartean, erakunde guztien artean helburu eta ekintza zehatzak adostuko eta erabakiko dituzte. Eta gero, euskalgintzak horren txostena egingo du eta ekainaren 19an aurkezteko asmoa du.

LABUR

Uribarri auzoan beste bide bat zabaltzea onartu du Gobernu batzordeak


Uribarri auzoko Etxezapia kalera joateko dagoen berdegune batean bide bat zabaltzea eta bide hori argizatzea eskatu zuen Uribarriko auzo-alkateak. Udalak onartu egin du eskaera hori eta 15.000 euro pasatxoko aurrekontua zehaztu du lanok egiteko. Berez, egingo duten bide hori oinezkoendako izango da; baina zerbitzu bereziak direnean eta Udaltzaingoaren baimenarekin, automobilak ere ibili ahal izango dira (larrialdietarako ibilgailuak, ehorzketetako ibilgailuak, polizia, eta abar), baita partikularren autoak ere (gaixotasun egoeretan eta kasu berezietan).

Zuzendaritzarako Idazkari ikasketak ezarriko ditu Mondragon Unibertsitateak

Datorren ikasturteetik aurrera, Zuzendaritzarako Idazkaritza ikasi ahal izango da MUko Enpresa Zientzien Fakultatean. Hiru urteko ikasketak izango dira, gaur egun, enpresetan sortu diren beharretara egokitutakoak. Horrela, ikasleek hizkuntzak (atzerriko gutxienez), enpresa kultura, kultura humanistikoa eta tresna informatikoak ondo jakitea izango da ikasketen helburu nagusia. Eta Mondragon Unibertsitatean ohikoa den moduan, ikasketak egin bitartean ikasleek praktikak egingo dituzte enpresetan eta atzerriara ere joan beharko dira, hizkuntzak praktikatzera.

Arrasateko aireak kalitate ona duela erakutsi du Laubideko instalazioak

Jaurlaritzako Ingurumen Sailak batu ditu dagoeneko Arrasateko kutsadura atmosferikoa neurtzen duten emaitzak. Iaz Arrasateko aireak izan zuen kalitatea zaintzen dute emaitzok. Eta datuen arabera, herriko airearen kalitatea ona da. Hori jakiteko, sulfurodioxido, nitrogeno dioxido, ozono, karbono monoxido eta hauts maila neurtzen ditu Laubideko instalazioak. Hala, jarduera industrialak eta zirkulazioak eragiten duten kutsadura, bigarren mailako kutsadura eta hauts kopurua zaintzen dituzte. Datuek diote parametro guztiak araudiak ezarritako mailen azpitik daudela.





Musakolako jaiak, bete-bete

Egitarau bete-beterekin ospatuko dituzte musakolarrek auzoko zaindariaren jaiak. Gaur, Erretiratuendako Eguna izango da, eta besteak beste, jai-afaria izango dute Kataiden, 19:30etan. Gauean, berriz, Izurri Berria eta Fundiziyue taldeek kontzertua emango dute. Bihar, Koadrilen Eguna izango da; pilota partiduak izango dira goizean, Urrezko Astokiloak emango dituzte gero, eta auzotarren bazkaria izango da 15:00etan. Domekan, besteak beste, azken traka izango dute. Eta martitzenean, base-rritarrek zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.



MOTO HOTSA MUSAKOLAN

Aurten ere motozaleek ez dute kalerik egingo eta San Isidro jaietan izango dira. Izenematea zapatu goizean izango da, eta arratsaldeko bost eta erdiateatik aurrera, moto zaharren erakusketa egingo dute. Arratsaldeko zortzi eta erdietan, afaria izango dute, eta gero, motoekin bueltatxo bat emango dute herriko kaleetan zehar. Domekan, goiz jaiki eta gosaldun ondoren, beste itzuli bat emango dute. Gatzagan hamarretakoa egingo dute eta arratsaldeko ordu batean, sari banaketa izango da.



AURTEN ERE...

Zigorrolako jaiak direla-eta, aurten ere astoak egin ditu bereak, eta oraingoan ere Arrasateko dragoiari tokatu zaio auzokoen bromak jasatea. Hauxe da aurtengo San Isidrotako jaien pegatina, eta azkenaldian nazioartean izan diren gatazketan Musakolako astoak izan du kulparik. Begiratu, bestela, argazkian zer-nolako itxura daukan.

PILOTA PARTIDUETAN HORRELA EGONGO BALITZ...

Uarkape pilotalekua lepo bete zen martitzenean. Fagor Elektatresnak enpresako langileek Batzar Orokorra egin zuten, eta asko zirenez, Uarkape pilotalekua aukeratu zuten ekitaldia egiteko. Benetan ikusgarria zen herriko pilotalekua-


ren itxura, eta askok, seguruenik, lehenengoz zapalduko zuten frontoia. Ea orain, zelakoa den jakinda, sarriago joatera animatzen diren. Baina hurrengoan, ahal bada, kontuak entzutera baino gehiago, pilota ikustera anima daitezela!



'DRAG QUEEN'-AK PROTAGONISTA

Martitzen eta zapatu gauean, *drag-queen*-ak izan ziren San Andres jaietan gaueko giroa berotzen. Antolatzaileen esanetan, bi gazte horiek sortutako ikuskizuna ikusteko modukoa izan zen, eta gaueko giroa berotzen ezin hobeto ibili omen ziren.

Kale, berriz, zahato-jaurtiketa antolatu zutenek egin zuten. Sekulako ikuskizuna izango zela aurreratu zuten, baina azkenean bertan behera gelditu zen, eta jendea txapelketa berri hori ikusteko gogoarekin geratu zen. Datorren urtean izango da.



HORI DA OLAGARROA JATEA HORI!

Aurtengo San Andresko jaietan olagarroak sekulako arrakasta izan du, eta ehunka lagun hurreratu dira San Andreseraino Galiziako jaki bereizgarri hori dastatzeko asmoz. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, olagarro apur bat jan eta *albariñoa* dastatzera hurbildu zirenek giro aparta aurkitu zuten, nahiz eta aurtan jakiak garestiago zeuden.



MUS TXAPELKETA

Gudarien plazan jokatu zuten Mus Txapelketan 38 bikote izan ziren. Izerdi asko egin eta gero, Juan Bautista *Juanillo* eta Herculiano Grille *Lan* izan ziren irabazleak. Txapeldunek, txapela irabazteaz gain, edariak eta 380 euro eskuratu zituzten. Bigarrenak Angel Moraleja eta Roberto Ortiz izan ziren, eta horiek, edariez gain, 190 euro irabazi zituzten.



HARRIA JASOTZEN

San Andresko jaiak Galiziako kutsua izan dute, baina, besteak beste, herri kirolek ere euren tartearen izan dute. Domeka goizean, herri kirol probak jokatu ziren San Andresen, eta hainbat eta hainbat herritar animatu zen kirolarien markak ikustera. Argazkian harri-jasotzailea azaltzen da, berrehun kiloko harria jasotzen.

ELKARRIZKETA

LEIRE URRETXO/OÑATIKO TRIATLOI TALDEKO ATLETA

"Geroago eta neska gehiago animatzen gara triatloia egitera"

ARRASATE IRRATIA

Leire mondragoetarra da, baina Oñatiko Triatloi Taldean dabil. Kirolzalea izanda, Mikel Lizarralde animatu zuen triatloian hastera, eta Oñatiko taldean neskek daudenez, errazago konbentzitu zuen. Arrasateko triatloi proban estreinatu zen, duela urtebete.

Zergatik ez dira batu ibarreko eta Oñatiko triatloi taldeak?

Egia esatearren, ez daukat oso argi kontu hori. Ni Oñatiko taldean nabil, eta neurri handi baten, talde horretan nabil neskek daudelako. Badakit Ibarreko taldea sortu zenean bi taldeak batzeko saiakera egin zutela, baina ez zirela batu. Ez dakit, ordea, zergatik ez diren batu.

Ez da erraza triatloian neskek aurkitzea, ala?

Ez pentsa, uste baino neska gehiago gabiltza triatloia egiten. Kontua da herri mailan jende gutxi ibiltzen dela triatloian; edo zelan ere, triatloi proba batera joaterakoan, hainbat neska ikus daitezke. Eta gainera, geroago eta neska gehiago animatzen dira triatloia egitera.

Triatloia hiru kirolek osatzen dute. Non moldatzen zara ondoen?


Gusturen bizikletan ibiltzen naiz, eta igeri egitea ere atsegin dut. Korrika egitea ez dut horren gustuko, baina triatloian korrika ere egin behar denez, bada...

Zelan hasi zinen triatloia egiten?

Nire lehenengo triatloia joan den urtean egin nuen, Arrasaten, hain zuzen ere. Orduan ez nukan talderik, eta neure kasa eman nuen izena Arrasateko Triatloian. Betidanik gustatu izan zait kirola egitea, eta neure buruari helburu jakin batzuk ezartzea interresgarria izango litzatekeela pentsatu nuen.

Mendia ere atsegin ei duzu.

Bai, eta asko, gainera. Bizikletan asko ibili izan naiz mendian, eta oinez ibiltzea ere asko gustatzen zait. Ez dakit triatloirako entrenamendu ona izango den, baina sasoiari apur bat eusteko, behintzat, balio du. Asko disfrutatzen dut kirola egiten, eta horretarako aukera daukadan bitartean...



XABIER URZELAI

"Neure burua ez dut profesional moduan ikusten. Kirola oso gustuko dudana zaletasuna da"

Ikusten duzu zeure burua kirolari profesional moduan?

Ez. Gazteago izango banintz, polita izango litzateke kirolek bizi ahal izatea. Horretarako, ordea, oso gaztetatik hasi behar da, eta orain ez daukat horretarako adinik. Nire kasuan, behintzat, kirola zaletasuna besterik ez da, eta horrela disfrutatzen dut, nahikoa daukat horrek.

Ordu asko pasatzen dituzu kirola egiten?

Baietz esango nuke. Lana eta ikasketak tartekatzen ditut, eta askotan entrenatzeko denbora laburra izaten dut. Noiz edo noiz, ikasketa orduak entrenatzeko aprobetxatzen ditut, hortaz...

Laster hasiko da triatloi denboraldia.

"Sasoi onean dagoen batekin entrenatzea gogorra da, baina bakarrik ibiltzea ere gogorra da askotan"

Bai. Orain arte duatloiak izan dira, eta ekainean hasiko dira triatloiak. Oraingo denboraldia ekainaren 2an hasten dela uste dut, eta ekainaren 8an, jokatuko da.

Ikusiko zaitugu Arrasateko triatloian?

Baietz uste dut; ordurako gertu egotea espero dut.

Zer da gogorragoa, zu baino sasoi hobean dagoen batekin entrenatzea ala bakarrik entrenatzea?

Ez dakit. Onena zure erritmo bera daukan batekin entrenatzea izaten da, baina askotan ez da erraza izaten horrelako bat topatzea. Oso sasoi onean dagoen batekin entrenatzea, berriz, gogorra izaten da, baina bakarrik entrenatzea askotan ere oso gogorra

ATLETISMOA

Arrasateko atletek punta-puntako postuak eskuratu zituzten Anoetako Txapelketan

Joan den zapatuan, kadete, gazte eta beterano mailetako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Donostian, eta Arrasateko atletak bikain ibili ziren. Asier Uribetxeberriak urrezko domina eskuratu zuen disko-jaurtiketan; eta ez zen bakarra izan, Jokin González-ek ere urrea eskuratu zuen eta pisu-jaurtiketan. Beteranoetan, Javier Mentxakak eta Maria Jose Gil-ek zilarra eskuratu zuten 5.000 metroko lasterketan. Maria Jose Gil-ek 1.500 metroko lasterketan ere hartu zuen parte, eta brontzea eskuratu zuen.

Jonathan Pérez, bestalde, Bartzelonan izan zen zapatuan, Estatu Liga Txapelketan. Jonathanek bigarren postua eskuratu zuen pertikarekin; 4,60 metroko jauzia egin zuen.

ARRASATE - OÑATI


Zapatuan hasiko da XX. Arrasate - Oñati Lasterketa, arratsaldeko sei eta erdietan

Herri lasterketa horrek hogeitaz egongo ditu aurten, eta aldi honetan ere ibarreko jende asko animatuko da Arrasate eta Oñati banatzen dituen hamaika kilometroak arineketan egitera.

Aurtengo aldian, ordea, aldaketaren bat edo beste izango da. Orain arte, gaztetxoek ere lasterketan parte hartzeko aukera izaten zuten, baina Zubillagan hasten zen gaztetxoek lasterketa. Aurten, ordea, lau lasterketa izango dira: benjaminen 300 metroko lasterketa egongo dute; alebinen 900 metro egin beharko dituzte; eta infantilek eta kadeteek 1.400 metroko lasterketa izango dute.

Izena emateko epea atzo amaitu zen, baina lasterketa hasi aurretik ere egongo da aukera izena emateko.

FOTOKIROLA



Ramon Ramila arrantzan protagonista

Ramon Ramilak TVE katearekin arrantzaren gaineko hainbat saio grabatu zituen orain dela hilabete batzuk, eta oraindik sasoi dagoela erakutsi du. Eibarko Diana Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatutako txapelketan izan zen arrasatearra. Arrantza Txapelketa Berriatuan jokatu zen, eta Ramonek 1.420 gramoko barboa harrapatu zuen. Pieza horregatik sari bat eskuratu zuen, eta sailkapen nagusian bigarren geratu zen. /X.U.

Babeslea  **SPORTLAND** FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ERRUGBIA

Arrasateko taldeak Logroñon jokatu du itzulerako partidua

Arrasatek kanporaketako lehenengo partidua galdu zuen joan den domekan (17-50)

XABIER URZELAI

Arrasateko errugbi taldeak ez zuen itxura onik erakutsi igoera faseko lehenengo partiduan. Aurreko egunean ospakizun berezia izan zuten, eta parrandaren ondorioak zelaian igarri ziren. Garagartzara hurreratu ziren jarraitzaileek, ordea, bikain pasatu zuten.

Oraingo astean etxekoek Logroñon jokatu dute itzulerako partidua, eta Arrasateko taldearen helburuetako bat Garagartzan emandako itxura hobetzea izango da. Garagartzan, Patxi Goro-sabelen mutilek astindu ederra jaso zuten, eta aurretik ere argi zegoen horrelako zerbait gertatuko zela, eta ez errioxarrak hobek zirelako.

Mondragoeko taldeak denboraldi polita egin du, eta igoera fasea inork espero ez zuenean iritsi da. Arrasatearrek ez dute igoera fasea seriotasunez hartu, eta, neurri handi baten, normala da, etxeko taldeak igoera fasean aurrera egitea ia ezinezkoa zenez. Alde batetik, goiko maila ez



OXEL EROSTARBE

Arrasatearrek bihar jokatu dute denboraldiko azken partidua izan litekeena.

delako etxeko taldearen neurrikoa; maila horretan jokatzeko talde osatuagoa behar da eta etxeko taldeak ez ditu gura beste jokalaririk. Horrez gain, Garagartzako instalazioek ere ematen dute zeresana, ez daude eta egoera onenean. Arrazoi horiengatik, besteak beste, etxeko taldeak argi zeukan

momentuz goiko mailak itxaron egin beharko duela.

Oraingo asteburuan, Logroñon, Arrasateko taldeak partidua irabaztera irtengo da, baina kanporaketan aurrera egitea oso gaitza izango da. Datorren urterako jende gehiago izango da Arrasateko taldean. Dena beharko da.

PILOTA

Herri Arteko Txapelketan Arrasateko pilotariak ezin izan dute aurrera egin

Pilotariak, maila polita erakutsita ere, ezin izan zuten Hernanin egindakoa konpondu

XABIER URZELAI

Herri Arteko Txapelketa gura baino azkarrago amaitu da herriko pilotariendako. Lehenengo kanporaketan Hernanin kontra neurtu behar izan zituzten indarrak, eta kanporaketa joaneko partiduan galdu zuten. Uarkapen, berriz, maila polita erakutsi zuten.

Egubakoitzean itzulerako partidua jokatu zuten Uarkape pilotalekuan, eta hemengo partidua ikusita, gaitza da ulertzea Hernanin jasotako jipoiak. Aspe eta Garitaonaindia kadeteek ezin izan zuten ezer egin Hernanin bikotearen kontra (12-22).

Gazte mailan, partidu polita izan zen; Zuazua eta Uribarren bikain ibili ziren. Uribarrenek, nahiz eta aspaldian ez jokatu,

bikain erantzun zuten, baina ezker eskuak nahi baino min handiago eman zion; ondo eutsi zuten, hala ere. Zuazuak ere tanto ederak egin zituen aurrealdean, eta gustura ibili zen kantxan. Partidu parekatua izan zen, nahiz eta arrasatearrek beti aurretik izan.


Partiduaren amaiera aldera, 21-21 zihozela, pilotari arrasatearrek azken ahalegina egin zuten eta 22-21 nagusitu ziren.

SENIORREK, ERRAZ BAINO ERRAZAGO

Joaneko partiduan seniorrak izan ziren Hernaniri irabaztea lortu zuten bakarrak, eta Uarkapen argi geratu zen etxeko pilotariak maila hobea zeukatela. Zugasti eta Lazkano ondo baino hobeto ibili ziren, eta hernaniarrak zerbaitz konturatu zirenerako aldageletan zeuden ordurako, etxekoak 22-2 nagusitu ziren eta.

Edozelan ere, Hernanin, han lortutako abantailari esker, aurrera egingo du, eta Arrasatek beste urte bat itxaron beharko du herriko pilotariak Herri Arteko Txapelketan berriro ikusteko.

Arrasateko pilotariak hasi dira dagoeneko San Juanetako Pilota Txapelketa antolatzen, eta laster hasiko da txapelketa hori.



XABIER URZELAI

Arrasateko kadete mailako bikotea partiduko une batean.

FUTBOLA

Mondrak lau eta bat irabazi zuen joan den asteburuan, eta bihar Tolosan jokatu du

Arrasateko futbol taldeak bi zati oso ezberdin jokatu zituen joan den asteburuan. Lehenengo berrogeita bost minutuetan Raul Le-baren mutilek ez zuten bat bera ere asmatu, eta Gazteak taldeak aurre hartu zuen markagailuan.

Bigarren zatian, berriz, hainbat aldaketa izan ziren eta partidua guztiz aldatu zen. Etxekoek gora egin zuten, eta lau gol egiteko bazituzten ere, askoz ere aukera gehiago izan zituzten.

SASKIBALOA

Kencik Erro eta Eugi taldearen kontra jokatu du denboraldiko azken partidua

Kenci Arrasatek igoera fasean dauden hiru talde gipuzkoar artean lehena izateko asmoz jokatu du oraingo asteburuko partidua. Kontrarioa Nafarroako Erro eta Eugi taldea izango da, eta mondragoetarrek gogotik izerditu beharko dute helburua lortzeko. Partidua Iturripen jokatu da, zapatuan, arratsaldeko selektatik aurrera.

Bestalde, gaur, egubakoitza, bukatuko da 3x3 Saskibaloia Txapelketan izena emateko epea. Txapelketa hilaren 18an izango da.

Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea			B Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Oscar - Igor	3	6	Txori - Kaji	2	4
Gaizka - Iraultza	3	5	Ander - Mikel	3	4
Pin - Bode	3	4	Eimon - Iker	2	3
Xabi - Egoitz	2	3	Ion - Igor	1	2
Gaizka - Ugutz	2	3	Pitu - Muxi	1	2
Toribio - Pi	2	3	Aritz - Aitor	2	2
Xabi - Gufi	3	1	Oxel - Kuki	1	1

D Taldea			E Taldea		
jok.	punt.		jok.	punt.	
Txetxi - Albes	3	5	Txopo - Frantxis	3	5
Bolu - Egoitz	2	4	Iker - Iker	2	4
Iraultza - Aitziber	2	4	Iñigo - Isturiz	2	4
Mikel - Unai	2	3	Jon - Andoni	3	4
Xabier - Oscar	1	3	Ander - Ibai	1	2
Kepa - Goiko	2	2	Tximu - Zaka	2	2
Edu - Igor	1	1	Lur - Skritx	1	1
Zubi - Pon	1	1			



Hurrengo partiduak:

Maiatzak 11, zapatua (Musakolako kiroldegian)

Aritz - Aitor vs Oxel - Kuki	10:00	Frontoi txikian
Txori - Kaji vs Pitu - Muxi	10:30	Frontoi txikia
Ion - Igor vs Eimon - Iker	09:00	Frontoi handia
Gaizka - Iraultza vs Toribio - Pi	09:00	Frontoi txikia
Xabi - Gufi vs Xabi - Egoitz	09:30	Frontoi handia
Pin - Bode vs Gaizka - Ugutz	09:30	Frontoi txikia
Iker - Iker vs Iñigo - Isturiz	10:00	Frontoi handia
Txopo - Frantxis vs Lur - Skritx	10:30	Frontoi handia
Jon - Andoni vs Ander - Ibai	11:00	Frontoi handia
Xabier - Oscar vs Kepa - Goiko	11:30	Frontoi handia
Bolu - Egoitz vs Edu - Igor	12:00	Frontoi handia
Mikel - Unai vs Zubi - Pon	12:30	Frontoi handia
Txetxi - Albes vs Iraultz - Aitzi	13:00	Frontoi handia

Musakolako jaiak



MAIATZAK 10, ostirala
(Jubilatuen eguna)

Goizeko 10:00etan

Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.

Goizeko 10:15etan

Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.

Goizeko 11:30etan

Danborrada, San Frantzisko ikastolako umeekin.

Arratsaldeko 17:00etan

Herri merienda, auzoko haur guztientzat.

Arratsaldeko 19:00etan

Ikurrina igotzea. Buruhandiak, gaiteroekin batera. Alkatetzatik gozokiak botatzea.

Arratsaldeko 19:30etan

Auzoko jubilatuentzako jai-afaria Kataide jatetxean.

Gaueko 23:00etan

Rock kontzertua: IZURRI BERRIA eta FUNDIZIYUE.

Gaueko 00:00+1ean

WOOD-BY-SER.

Gaueko 00:00+beranduuu

BER-TA-TIK.

Gaueko 00:00+beraaanduuuuu

BER-TA-RA.

Egun osoan kohete jaurtiketa.

ISANA *Itzapaindegia*

Elkano kalea, 4 behea Tel.: 943 79 60 55



ARRASATE
Electricidad

**INSTALAKUNTZA ETA
MUNTATZE ELEKTRIKOAK**

- Argizatze profesionala
- Diseinuzko argizatzea

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77
Gipuzkoa etorb. 37 Tel./Fax: 943 79 65 93



Taberna - Jatetxea

**HOSTAL
MUSAKOLA**

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50



OTXOA, S.L.

Haziak, ferreteria,
drogeria, jardinerako
tresnak eta etxeko
animalientzat osagarriak

Musakola Industrialdea 2 Tel.: 943 79 17 79


Estrella Taberna

Elkano, 3 Tel.: 943 79 20 82

Txinato Taberna

Elkano kalea 9. Tel.: 943 79 20 65

ARRASATE
Maisu Arambarri, 1
20500
Tel. 943 77 14 14

DURANGO
Ermoño, 11
48200
Tel. 94 620 30 37

Okindegi - Gaztegi
BEROGI
Etxeko Etxak

MUSAKOLAKO

MAIATZAK 11, larunbata (Koadrilen eguna)

Goizeko 10:00etan

Eguzki eta eguraldi ona.

Goizeko 11:00etan

Pilota Partidoak.

Lehen partidua:

JOSE ANGEL AGIRRE - BARBERO
PEDRITO - SIERRA

Bigarren partidua:

BEITIA - IZAGIRRE
ARRIARAN - J.VITORIA

Eguerdiko 12:00etan

Herri txikiteoa, soinu jotzaileak alaiturik.

Jubilatuen etxeko tabernatik irtengo du astoak.

Arrasate Motozale Elkarteak antolatutako

motozaleen kontzentrazioaren hasiera.

Eguerdiko 13:30etan

Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.

Arratsaldeko 14:00etan

Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.

Arratsaldeko 15:00etan

Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan, jatorrizkoizeneko produktuez, hemengo ardoaz eta aukeratutako urez, Musakolako txarangak alaituta.

Arratsaldeko 16:00etan

XI. Xake irekia. Partida arinen modalitatea. San Antolineko ikastolan.

Arratsaldeko 17:00etan

Herri kalejira.

Arratsaldeko 18:00etan

San Isidro Sokatira sari nagusia.

Arratsaldeko 19:30etan

Buruhandiak, gaiterokin batera.

Gaueko 23:00etan

Berbena goizaldera arte, IZOTZ taldeak alaituta.

Beste berbena bat San Isidro eliza

ondoan, KAIXO taldeak alaituta.

Gauerdian:

Hainbat moda-ikuskitun auzoko pertsonaia xeblereenekin.

Egun osoan kohete jaurtiketa.

Leniz



Motor

BASO, LORATEGI ETA
NEKAZARITZARAKO
TRESNAK

STIHL

VIKING

MOTOR SALMENTA
ETA KONPONKETA

Gipuzkoa etorb., 9 • Tel.: 943 79 11 78



García Ripa
ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako

alfonbrak

Gortinak, mahai

eta aulkiak



BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 943 79 16 99

MUSAKOLA
estankoa

Antxo Abarka, 6. Tel.: 943 79 17 57

TOURLINE
EXPRESS

79 69 99

Mezulariak

Antxo Abarka, 6

JEY
JULIWER

Eikano kalea, 36 Tel.: 943 79 22 11

BEGOÑA

Lurrindegia • Drogeria

Gipuzkoa etorbidea, 33 Tel.: 943 79 03 73



HARATEGIA
URDAITEGIA
Maisu Aranbarri, 2
Tel.: 943 79 29 14

jaiak



MAIATZAK 12, igandea (Pobre de mi)

Goizeko 10:00etan

Eguzki eta eguraldi ona.

Goizeko 11:00etatik 14:00ak arte

Puzgarriak.

Eguerdiko 11:30etan

Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian.

Eguerdiko 12:30etan

Txikiteoa, Bikote-Maixa taldeak alaituta.

Arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak arte

Puzgarriak.

Arratsaldeko 18:30etan

Dantzaldia Ardoa Barrura txarangarekin, betiko lekuetan.

Gaueko 00:00etan

Azken traka "Paseo maritimo"an, suzko erru-berak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera,



Sarrailagintza

Giltzak, urrutiko managailuak. Irekitzeak, jartzeak eta salmenta.

Konponketa

Oinetakoak eta aterkiak.

Era guztietako opariak

Diru-zorroak oroigarriak giltzakoak... Era guztietako opariak.

Hiper Eroski, lehen denda • Arrasate
Tel. eta faxa: 943 79 76 03


LIRAIN ILE APAINDEGIA

ELKANO KALEA 38 BEHEA. • TEL.: 943 79 52 37

KORTABERRI



**Harategia
Urdaitegia**

Antso Abarka, 3
Tel.: 943 79 20 28



**MENETA
TABERNA**

Etorri eta
proba ezazu
Menetako
txorixue

Photo Flass
Ordubetea

Eroski merkatal gunea Tel.: 943 77 19 54



Iturgintza

ERAKUSKETA:
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
ARRASATE • Tel.: 943 77 01 85

ZIORLA GARRAIOAK



PREMAZKO ZERBITZUAK
NAZIONALA-NAZIO ARTEKOA

TEL.: 609 14 25 25

**HIPER EROSKI
KAFETEGIA
JATETXEA**

Eguneroko
menua

Musakola Pol. z/g
Tel.: 943 79 55 69

**IOSU
KAFETEGIA**

Elkano kalea, 25
Tel.: 943 77 03 66

Elkano, 10
Tel.: 943 79 04 49



Eskolan eta
auzoan festa
eta jai giroan...

Euskara
beti ahoan!

J. Elorza

Harategia • Urdaitegia

Joan Bengoa, 1 Tel.: 943 79 75 80



GIMNASIA ERRITMIKOA

A mailako Eskola Arteko Gimnasia Txapelketa izango da bihar Uarkapen

Bihar jokatu den txapelketa Eskola Arteko A Mailako finala izango da, eta Arrasateko taldetik hamabi gimnasta arituko dira

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan, gimnasia erritmikoa protagonista izango da herrian; izan ere, zapatuan, A mailako Eskola Arteko Txapelketako finala jokatu da Uarkapen. Domekan, berriz, gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo dute Musakolan.

Bihar, A mailako Eskola Arteko finala jokatu da Uarkapen, eta alebin, infantil, gazte eta kadete mailetakoko gimnastak arituko dira. Goizeko hamar eta erdietatik arratsaldeko ordu biak arte, alebin eta infantil mailetakoko gimnastak arituko dira. Nagusiagok arratsaldean izango dute hitzordua; arratsaldeko hiru eta erdietatik aurrera, kadete eta gazte mailakoen finala jokatu da.

Biharko txapelketan 50 gimnasta izango dira, Bergara, Donostia, Irun, Tolosa, Azkoitia, Lasarte eta Hernanitik etorriak. Arrasateko taldetik hamabi gimnastak hartuko dute parte. Alebin mailan sei neska izango dira: Ainhoa

Apaolaza, Saioa Arriola, Jone Goikolea, Leire Poyato, Mireia Rodríguez eta Amaia Sánchez, hain zuzen. Neska horiek bakar-bakar eta taldeka arituko dira. Bakarkako ariketak esku hutsik eta sokarekin egingo dituzte, eta taldeka pilotarekin arituko dira.

Infantil mailan, neska bakarra arituko da herriko taldeari dagokionez: Marta Etxebarria; Marta bakarka arituko da uzta eta pilota modalitateetan.

Gazte mailan, azkenik, bost gimnasta arituko dira Arrasateko taldearen ordezkari: Maialen Balentziaga, Janire Bolinaga, Miren Bragado, Edurne Elkoro eta Maria Etxebarria. Horiek ere, bakar-bakar eta taldeka.

DOMEKAN, GIMNASIA ERAKUSTALDIA

Domekan, goizeko hamaika eta erdietatik aurrera, gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo dute Musakolan. Erakustaldi hori San Isidro jaietako egitarauaren barruan dago, eta Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko gimnasta guztiak arituko dira.



Biharko finalean Arrasateko Taldean arituko diren gimnasta batzuk. Domekan, berriz, erakustaldia egingo dute Musakolan.

Sartzea lortzen badute, gureak egin du, Jack!

Lasai, Goiena Telebistan
SARRERA DOAN edukiko duzu.



SARRERA DOAN

- Eguetan, 20:30ean
- Errepikapena egu bakoitzean, 14:30ean
- Aurkezlea: **Amagoia Lasagabaster**



XAKEA

Josu Tornayk eta Txema Hernandok eman zuten jardunaldiko ezustea

Bi mondragoetarrek txapelketako favoritoen kontra irabazi zuten

XABIER URZELAI

Arrasate Hiria Xake Txapelketak aurrera jarraitzen du, eta aurtengo aldi berdintasuna da txapelketako ezaugarri aipagarriena. Joan den egubakoitzean, Txema Hernandok eta Josu Tornayk garaipen garrantzitsuak eskuratu zituzten. Gaur, seigarren jardunaldia jokatuko dute.

Josu Tornayk ezuste ederra eman zuen bosgarren jardunaldian; mondragoetarrek liderraren, Borja Zamarbide gaztearen, kontra jokatu zuen, eta aurreikuspen guztiak hautsiz, Arrasatekoak puntua bereganatu zuen.

Zeingehiagoka eguaztenean jokatu zuten, gazte nafarrak beste txapelketa bat zeukan-eta egubakoitzean. Josuk ez zuen inongo arazorik izan partidua aurreratzeko. Alderantziz, lasaiago ibili zen: "Egubakoitzetan jende asko izaten da lokalean, eta eguaztenean lasaiago jokatu nuen".

Partidari dagokionez, xakelari biak kontu handiz ibili ziren partida osoan, eta berdinketa izango zela ematen zuenean, Borja Zamarbidek partida irabaztearren larregi arriskatu, eta Josuk ez zuen barkatu: "Seguru nago urte batzuk barru Borja maisu handia izango dela, baina oraindik gaztea da, eta besteok esperientzia daukagu".

Txema Hernandok ere ezuste ederra eman zuen, eta Gerardo



XABIER URZELAI

Xake partidatan isiltasuna izaten da nagusi.

Fernández txapelketako bigarren favoritoa mendean hartu zuen. Partida oso azkarra izan zen, eta Fernández-ek berdinketa sinatzeko aukera izan bazuen ere, arriskatu egin zuen, eta Hernandok ez zuen barkatu.

Arrasateko San Andres taldeko gainerako xakelariak galdu

egin zuten, eta txapelketako liderra orain Cristobal Limeres gertikarra da. Bigarren lekuan Borja Zamarbide dago, eta hirugarrena Karen San Pedro da. Etxeko taldeko onena Josu Tornay da, bi puntu eta erdirakin. Gaur ere, egubakoitza, partidak izan dira, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

FOTOKIROLA



AT Celaya taldeak ezin izango du hurrengo fasea jokatu

Aurten ere, txapelketan ondoen jokatu duen taldeetako batek, AT Celayak, ezin izango ditu azken partiduak jokatu, dagoeneko ez dauka-eta aurrera egiteko aukerarik. Talde horrek futbol ikusgarria egiten du, baina txapelketako azken txanpetan kale egiten du. Argi dago ondo jokatzea ez dela nahikoa Zaldibarren aurrera egiteko. Lastima, aurrera egitea merezi zuten-eta. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Goma2	3-4
Usozt Potroak - Bikain Akademia	0-1
Etxerat - Koka Junior Basati	3-10
AC Surcos - Bin Laden	0-1

B MULTZOA

Azkena You Know - AT Celaya	6-1
IKP - Irati STS	1-10
Chapime Dribling - Aurrera Bolie	6-2
Betrayer - Rayo Aldeano	3-4

PARTIDUAK

MAIATZAK 11, ZAPATUA. EPAILEAK

11:50: Goma2 - KJ Basati. Antolakuntza
13:00: Irati STS - Azkena YK. Antolakuntza
15:50: Etxerat - AC Surcos. Antolakuntza
17:00: AT Celaya - AC Surcos. Antolakuntza

18:00: I.K.P. - Rayo Aldeano. Antolakuntza

MAIATZAK 12, DOMEKA

11:50: Iriztu tab - Bikain Akad. Antolakuntza
13:00: Betrayer - Chapime Dribling. Antolakuntza

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	11	6
2. Goma2	9	6
3. Etxerat	9	6
4. Koka Junior Basati	8	6
5. Bikain Akademia	4	6
6. Iriztu Taberna	4	6
7. Bin Laden	3	6
8. Usozt Potroak	0	6

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	8	5
2. Irati STS	6	5
3. Rayo Aldeano	6	5
4. Chapime Dribling	6	5
5. Betrayer	5	5
6. AT Celaya	4	5
7. I.K.P.	3	5
8. Aurrera Bolie	2	5

JARDUNALDI ISTILUTSUA

HAINBAT TALDEK, FUTBOLEAN BAINO AREAGO, BOXEOAN EGIN ZUTEN

Seigarren jardunaldia nahiko zalapartatsua izan da. Hemendik aurrera jokatuko diren partidu gehienek berebiziko garrantzia izango dute, eta taldeetako jokalariek komeni dena baino gogorrago jokatzen dute. Joan den asteburuan, Rayo Aldeano eta Betrayer eta Goma2 eta Iriztu Taberna taldeek partidu zalapartatsuak jokatu zituzten. Horren ondorioz, Rayo Aldeano taldeko jokalariek batek bi partiduko zigorra bete beharko du, eta Goma2 eta Iriztu taldeetako jokalariek banak hiru partiduko zigorra izango dute.

BIN LADEN TALDEA TXAPELKETATIK BOTA DUTE

Bin Laden taldeak agur esango dio txapelketari bigarren fasea amaitu aurretik, joan den asteko partidura ez ziren-eta jokatzeraz azaldu. Bestalde, oraingo asteburuan, hainbat partidu interesgarri izango dira. A multzoan argi dago nortzuk sailkatuko diren, baina B multzoan ez dago ezer erabakita; Betrayer eta Chapime Dribling taldeen arteko partiduan gauza asko argituko dira, asko daukate-eta jokoan. Antolatzaileek, beste behin, lasaitasuna eskatzen diete taldeei.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Tolosaldea - Mondra Erregionala. Domekan. 11:30. Tolosa.
Mondra - Ilintxa Ohorezko gazteak. Zapatuan. 16:00. Atxabalpe.
Arrasate - Mariaren Bihotza 2. mailako gazteak. Zapatuan. 18:00. Atxabalpe.
Aurrera Ondarroa - Arrasate Ohorezko kadeteak. Domekan. 10:30. Ondarroa.
Aitzgorri - Arrasate 2. mailako kadeteak. Zapatuan. 11:30. Segura.
Mondra - Elgoibar Neskak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpe.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Urola Agip Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripe.
Arrasate - Aloña Mendi 2. mailako seniorrak. Domekan. 11:30. Iturripe.
Arrasate - Ereintza Aguaplast Gazteak. Domekan. 10:00. Iturripe.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasate - Erro eta Eugi Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripe.
Etxadi Easo - Kenci Arrasate Junior mutilak. Zapatuan. 18:00. Donostia.

Goierrri - Kenci Arrasate Junior neskak. Domekan. 12:15. Urretxu.
Ordizia - Kenci Arrasate Kadeteak. Zapatuan. 12:15. Ordizia.

ERRUGBIA (IGOERA FASEA)

Errioxoa - Arrasate Seniorrak. Zapatuan. 16:30. Logroño.
--

GIMNASIA ERITMIKOA

A Mailako Eskola Arteko Finala Zapatuan. Goizean, 10:30etik 14:30era, eta arratsaldean, 15:30etik 18:30era.

ATLETISMOA

Arrasate - Oñati Lasterketa Zapatuan. 18:30. Garibai etorbidean.
--

EMAITZAK

FUTBOLA


Erregionala: Mondra - Gazteak	4-1
-------------------------------	-----

SASKIBALOIA

Seniorrak: Sto. Lizeoa - Kenci Arrasate	64-52
---	-------

ESKUBALOIA

Seniorrak: Allerru - AGR Arrasate	24-18
-----------------------------------	-------



IKER BARANDIARAN

Arrasateko Txema Valle enologoa irakasle ibili da Ardo Dastatzearen gaineko ikastaroan.

TXEMA VALLE/ENOLOGOA

“Hemen ‘Riojitis’-a dago, eta gaitza da beste ardo batzuk sartzea”

ARRASATE IRRATIA

Arrasateko Txema Valle enologoa Ardo Dastatzearen gaineko ikastaroa eman du Olarte kalean azken egunotan. Errioxakoak ez diren ardoen inguruko ezjakintasuna salatu du eta beste ardo batzuk aldarrikatu ditu.

Badakigu ardo edaten?

Gauza bat da edatea eta beste gauza bat da daukagun aukera aprobetxatzea. Euskal Herrian ez dakit, baina inguru honetan, behintzat, *Riojitis*-a sumatzen da, Errioxako ardoaren alde egiten dugula-edo. Hori ikusita, hona beste ardo mota batzuk sartzea oso gaitza izaten da. Alde horretatik, hutsune handia ikusten dut. Edaten badakigu, baina aukera gehiago daude, eta ez dut uste aprobetxatzen direnik.

Lehen, gaur egun baino txikite gehiago egiten zen, eta urte batzuetan garagardoak leku handia hartu dio ardoari. Hala ere, ardo bueltan datorela dirudi. Hala da?

Bai, egia da, ardo bueltan dator. Gaur egungo gazte batzuek zukuak eta antzekoak edaten dituzte, baina poliki-poliki ardo sartzen dabil berriro ere. Edoze-lan ere, oraindik batzuek uste dute ardo bazkari berezietan bakarrik hartzeko dela.

Zuk, Txema, kalean zaude-nean ardo edateko ohiturarik

“Kalean, gero eta gutxiagotan edaten dut ardoa, gura barik, aztertzen ibiltzen naizelako”

“Ikastaroan, ardo zelan egiten den eta ardoak dituen ezaugarriak ikasi ditugu”

badakuzu?

Gero eta gutxiago. Agian, *defektu profesionala* edukiko dut. Ardo bat edaterako orduan, gura barik, zelanbait ardo hori aztertzen ibiltzen naiz eta ez naiz gustura egoten.

Eta zu enologoa zara, ezta? Non ikasi zenuen?

Duela sei-zazpi urte, Biasterin ibili nintzen Enologia ikasketak egiten.

Eta enologo moduan lanik egin izan duzu?

Villabuena de Alavako upe-lategi baten lanean ibili nintzen. Oso esperientzia polita izan zen.

Oso gaitza ei da enologo-izatea. Ezaugarri asko bete beharra dago, ezta?

Bueno bai, egia da, baina zale-tasuna edukiz gero eta mundu hau atseginez gero, egin daiteke.

Eta zeini gomendatuko zenioke Ardo Dastatze ikastaro hori?

Ardo eta horren inguruko guztia gustatzen zaionari. Ikastaro horretan, alde batetik, ardo egiteko ematen diren pausoak ikasiko ditugu, jende askok zelan egiten den ez daki-eta, oinarri bat izan dezan. Horrez gainera, zergatik irteten diren ezaugarri batzuk ardoan eta horiek zelan sumatzen ditugun aztertuko dugu. Eta bestetik, ezaugarri horiek sumatzen ere ikasiko dugu.

Eta zein ardo dastatuko dituzue ikastaroan?

Oraindik berba egin beharra daukagu, baina posible bada, ardo zuriarekin hasiko gara –albariñoa, txakolina...; gero, ardo gorriarekin jarraituko dugu –horiek gero eta gutxiago edaten dira; eta horren ostean, ardo beltzarekin jarraituko dugu, jendeak gehien gustuko duen ardo motarekin, urteko *Rioja*-ren bat eta, posible bada, ardo ondu edo erreserbako ardoren bat, ahal badut *Somontano* bat. Oraindik ez dugu guztiz zehaztu. Baina asmoa da *Rioja*-z gain, beste ardo on batzuk ere daudela erakustea, eta jakina, horiek ere dastatzea eta aztertzea.

Arrasateko Musikal Big Band eta Comboa bihar Amaian

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Musikal Big Band taldeak eta Arrasate Musikal Comboak kontzertua emango dute bihar, 20:00etatik aurrera, Amaia Udal Antzokian, Arrasate Musikalen musika zikloari bukaera emateko.

Arrasate Musikaleko Big Band taldea 2000-2001 ikasturtean sortu zen. Izan ere, Arrasate Musikaleko perkusio irakasle Jose Ramon Elkorori musika estilo modernoagoak jorratuko zituen talde bat sortzea bururatu zitzaion, eta hala proposatu zion Arrasate Musikaleko batzarrari eta zuzendaritzari. Eskolak baiezta eman zion eta ekimena abian jarri zuen Jose Ramon Elkorok.

Ikasleekin berba egin eta berehala, pianista, baxu jotzaile, bateria jotzaile eta gitarrista bana batu ziren. “Gure asmoa musika

estilo modernoagoak ikasten dituzten ikasleei irteera ematea zen: *funky*-a, jazza, rocka, filmen soinu-bandak, saltsa apur bat...

HOGEI LAGUNEO TALDEA

Poliki-poliki, perkusionista bat, lau saxofoi, bi tronboi eta hiru tronpeta ere batu zitzaizkien, eta duela gutxi beste bi tronboi sartu dira taldean. Guztira, hortaz, hogeitaz hamar urte arteko adina dute taldekideek.

Iazko ikasturtean abeslari bat izan zuten, baina aurtengoan, ordea, ezin izan du taldearekin abestu, eta instrumentalak jotzen dihardute. Bestalde, txirula jotzaile bat ere sartu berri da taldean.

Iaz, bi kontzertu eman zituzten eta aurrenekoan, hiru. Biharko emanaldian, *swing*-a, *funky*-a, *bossa nova*, musika latino eta soinu-bandak joko dituzte.



IKER BARANDIARAN

Urte hauetan guztietan ehunka musika taldek jo dute Arrasateko gaztetxean.

Gaztetxeko kontzertuen historia, karteletan ikusgai

I.B.

Arrasateko Gaztetxeak hamai-ka urte egin ditu, eta urte hauetan guztietan hainbat ekitaldi antolatu izan dituzte hantxe. Ekitaldietako asko musika kontzertuak izan dira, eta 170 kartel batu dituzte.

Gaztetxean urtetan ekintzak antolatzen ibilitako lagun talde batek erakusketa bitxia antolatu du. 1991. urtetik hona –gaztetxea zabaldu eta ekintzak egiten hasi zirenetik hona– gaur eguneraino egin diren ekitaldi guztiak urtez urte batu, eta horrez gainera, hamabost bat paneletan musika kontzertuen hainbat eta hainbat kartel jarri dituzte.


EUSKAL HERRITIK NAZIOARTERA

Guztira, 170 kontzerturen kartelak batu dituzte, eta tartean, iraganean zein gaur egun ezagunak


diren musika talde mordoak ageri zaigu. Nazioartekoak, esaterako, AEBetako Rhythm Collision, Million Of Dead Cops, Short Fuse eta bestelakoak aurki daitezke. Europako herrialde askotakoak ere badaude, eta Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko askotxo ere bai.

Erakusketan ageri diren kartel gehienak Din-A3 formatukoak dira, eskuz eginak eta zuri-beltzekoak, sasoi hartan halakoak egiten zituztelako. Horrez gain, zenbait talderen birak iragartzen dituzten kartel koloretsuak ere badaude, promoziokoak, eta abar.

Kontzertuak iragartzen dituzten karteletan gain, Ospitale Zaharrean egindako musika emanaldietan salgai izandako hainbat sarrera ere batu dituzte, erakusketa beraren osagarri egoki moduan: Negu Gorriak, MCD, RKL, Naco Goñi eta beste talde askoren sarrerak, hain zuzen ere.



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

E, TXO!

**TXATXILIPURDIREN
UDALEKUAK**

Urtero moduan, Txatxili-purdi elkarteak umeendako eta gaztetxoendako udalekuak antolatu ditu. Aukera zabala dute: 1999an jaiotakoendako, Bilin Bolonka; Haur Hezkuntzako hiru eta sei urte bitartekoendako, Babylekuak; Lehen Mailako Hezkuntzakoendako, udaleku irekiak; eta nagusiagoendako, mendi ibilaldiak, txangoak eta bestelakoak. Izena eman, lehenbailehen, Txatxili-purdin, Pablo Urangan, ekainaren 18a aurretik.

MUSIKA EMANALDIK

Joan den asteburuan, AGAKOkoek atsedendia hartu zuten. Izan ere, aurreko hilabetean, gaztetxeko XI. urteurrena ospatzeko ekitaldi mordo antolatu zituzten. Oraingoan, ordea, ekitaldi mordo batekin datoz berriro. Gaur bertan, egubakoitza, 22:00etan, Nafarroako Berri Txarrak taldea izango da gaztetxean. Bihar, zapatua, 22:00etan, eta gaztetxean hori ere, rock-and-roll doinu gogorrakoak izango dira entzungai: Coruñatik Ultracuerpos taldea etorriko da, eta Urretxu aldetik, berriz, Dirty Jackets, The Hot Dogs taldeko partaide ohien talde berria. Musika eskaintza oparoa, hortaz.

PUERTO RICO BÉRBAGAI

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, Arrasateko gaztetxean, Puerto Ricoko Lissette Orellanok, *Ningún modelo a seguir* aldizkariaren arduradunak, Puerto Ricoko egoera politiko eta sozialaren gaineko berbaldia egingo du. Puerto Ricoren gainean oso gutxi dakigu, eta interesgarria izango da. Eskuak Burura taldeak antolatu du.

GUREGAIK/ GAZTETXEKOEN BIGARREN ESKUKO AZOKA**Bigarren Eskuko Azoka Alternatiboa antolatu dute asteburuan**

IKER BARANDIARAN

Gaztetxekoek Bigarren Eskuko Azoka Alternatiboa antolatu dute oraingo asteburuan. Gaurtik hasi eta domeka arte, Seber Altuben arropa, jostailu, disko eta bestelakoak merke erosteko aukera egongo da.

Gaztetxeko batzarrekoek, AGAKOkoek, Bigarren Eskuko Azoka Alternatiboa antolatu dute oraingo asteburuan. Etxean pilatuta ditugun liburu, disko, arropa, jostailu eta bestelakoak behar ez ditugunak jasotzen ibili dira azken asteotan gazteak. Jasotako material guztiarekin, hortaz, gaur arratsaldean, bihar goiz eta arratsaldean eta domekan goiz-eguerdiz, azoka jarriko dute Seber Altu-

*Gaur iluntzean,
bihar goiz eta
atsaldez eta
domekan, eguerdian,
Seber Altuben*

be plazan. Eta salneurriak merke-merkeak izango dira.

OHITURA ZAHARRA BERRESKURATU

Aurretik ere AGAKOk -eta kasuren baten Orkatz eskaut taldearekin batera- azoka alternatiboa antolatu izan ditu Gabonetan. Gabonetako kontsumismoaren



1998an, hirugarren azoka egin zuten Jabiloren alde.

aurrean, gauzak behin baino gehiagotan erabiltzeko joera bultzatu gura izan dute, bai eta bir-

ziklapena ere. Ez dira Gabonak, baina aproposa ikusi dute halako ekimena bultzatzea.

LOTSABARIK/ Jokin Zubiria**“Egia esatearren, nahiko lotsabakoa naiz”**

UBANE MADERA

Txoritxo batek kontatu digu Jokinnek pianoa jotzen duela eta dantzan ere ez dabilela batere trakets. Jokinnek, ordea, ez digu hori esan; baina bai lotsabako samarra dela eta hemen dezente ligatzen dela:

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Mediku, filmetan-eta ikusten nituelako.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta ez, eta ezta umee-kin ere. Bikotearekin, berriz, bai, baita etxebizitzarekin ere. Ez dakit, bada, edozein pertsonaren

moduan esango nuke nik.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

21 edo 22 urte. 18 urtetik aurrera gura dena egiteko askatasun handiagoa dagoelako. Esate baterako, egubakoitz eta zapatu gaetan lagunekin irten...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Ikasketei, lagunak edukitze-ari eta familiari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Bereziki, etorkizunean lan barik egoteak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Lotsatzen naiz noizean behin, baina momentuan ez dut gogor- ratzen bereziki zerk ematen didan

lotsa. Egia esatearren, nahiko lotsabakoa naiz. (Barreak)

• Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?

Nahiko eskuzabala naizela uste dut, baina era berean, oso azkar haserretzen naiz.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai, bai, bai! Neska oso politak daude.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Uf! Hankak-edo. Ez dute ezer berezirik, baina luzeak dira eta...

• Pertsona bat ezagutzeari, zeri botatzen diozu begirada lehengo?

Pertsonari ez diot begiratzen, harik eta berarekin berba egiten dudana arte.



ADINA: 21-22 urte • IKASKETAK: DBHko bigarren maila • ZALETASUNAK: Kalera irtetea
LIBURU BAT: 'El Señor de los Anillos' • FILM BAT: 'Matrix' • MUSIKA TALDEA: System of Down • KIROL TALDEA: Reala



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Eduardo Jauregi Aldalur

BASALORE EKODENDAKUE

XABIER URZELAI

Bergararra jaiotzez, Mondragueko kontuek edarto ezaguketan dittu, garai baten hamengo udaltzain izen zan-eta. Basalore dendie gustoz zabaldu euen, osasunakin zerikusixe daukon dana gustetan jako-eta. Oin, baraualdixe egitten dabil; gorputze garbiketako ona ei da. Hala eta be, umore onez dago.

Amets bat?

Zorionsue izetie.

Eta amets txar bat?

Bizitza ez aprobetxetie.

Egin dozun azken biajie?

Tunisiara, oin dala hiru urte.

Txartel horixe, zeïnei?

Politikuei.

Eta gorrixie?

Sharon-ei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El nombre de la rosa / El nombre de la rosa / Avalon.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernako txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Bergararrek eta mondraguetarrek estilo diferentie daukie. Hamengo estilue be gustetan jat.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Horrenbeste gauza daguz...

Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskal Herrixe euskaldunok gestionau biherko geunkiela uste dot. Horretan egingo neuke lan.

Bizio bat?

Jentiek barriketean egittie.

Mendi bat?

Gorla.

Bizi izetera hiri batera juetkotan, nora?

Hau ez da hirixa, ala?

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Zorionez, asko daguz.

Tranpan ibilttekotan nor-



*“Eleixaren erruz,
Erdi Aruen kultura
hau galdu egin zan.
Sorginkerixie
zalakuan-edo”*

baittekin, zeïnekin?

Jennifer Lópezekin, adibidez.

Telebisiñoko programa bat?

Ez dauket faboritorik.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Biajetan.

Ze saltzen dozue Basalore ekodendan?

Gauza asko saltzen dogu. Labur esatiarren, produktu biologikuek eta naturalak; fitoterapia, zelanbait esatiarren.

Uda gertu egonda, jentie etortzen da dieta eske?

Bai.

Eta ze esango zeuskio argaldu gure dauen bati?

Neure lagun ziklista batek esa-

*“Neure bezeruendako
osasuna oso
importantie da.
Osasun barik ez dago
ezer egitterik”*

ten dauena, udako lasterketak neguen irabazten diela.

Saltzaille lana egittiez batera, aholkulari be bazara, ala?

Bai, askotan medikuen moduan egitten dogu. Arazue entzun eta konsejue emun. Psikologo lanak be egitten dittugu, hortan...

Zelakuek die zure bezeruek?

Osasunari inportantzia emuten dutzon jentie da. Jentiek balixo diferentiek dauko, eta neure bezeruendako osasuna oso inportantie da; izen be, osasun barik ez dago ezer egitterik.

Dendan dauketzun produktu arraruena?

Asko daguz: hanburgesa begetalak, ardo biologikue...

NIREBIDAIAHURA / Gontzal Landa

Eskoziara / 1999ko abuztuan

Urtero-urtero, abuztuaren hasiera aldean, Kale Antzerki Jaialdiak zoramen koloretsu eta zalapartatsuan murgiltzen du Edinburgh hiria. Hiru egunez, mundu osoko musikarien, malabaristen eta aktoreen emanaldiez gozatu genuen koadrilako Aimirrek eta biok, High Lands-etako lasaitasun orlegira bidaiatu aurretik.

Eskozia (gaelikoz Alba) ipar-mendebaleko kostalde zimurtuan badago Fort William izeneko hiri txiki eta lasai bat, Ozeano Atlantikoaren zakartasunetik ezkutaturik-edo. Hiri horretatik Aimarren eta bion arreta handien piztu zuen gazetako bat fiordoaren ur hotz eta beltzen ondoko gaztelu zaharra izan zen. Antza, 1280an, Ingalaterrako errege Edward Iak berau eraikitzea agindu zuen, eskoziarrak menderatu guran. Hara joan ginenean ohartu ginen zutik zirauen gauza bakarra gotorlekuaren harresi sendo eta garaia zela, eta barruko aldea, ordea, hutsik zegoela; generaman kanpadenda jartzeko landatxo bat baino ez.

Abuztuko arratsalde hura Fort William erdialdeko pub eroso eta bero horietako baten eman genuen, eskoziarrekin solasean, garagardo pintak dastatzen genituen bitartean. Handik irten orduko gau iluna zen eta, gainera, euria gogoz ari zuen. Bidean ginela, arratsalde hartan irakurritakoa gogoratu nuen: 1645ean, Ingalaterrako erregearen eta eskoziarren arteko harremanak beste behin garratu ziren, eta High Lands-etako klan batzuek bat egin zuten eurenak ziren lurak eskuratzeko. Garai hartan, Ingalaterrako erregea Fort William-eko gazteluaren jabe zen, eta giro ez zenez, ingelesek ateak itxi zituzten.

Urte bereko otsailaren bigarrenean, eskoziarrek eraso egin zuten, baita porrot handia sufritu ere. Gau hartan ez zitzaigun mamurik etorri gudaren gorabeherak kontatzea, ez eta beharrik ere, besterik ezean irudimenak historian zehar bidaiatzera gonbidatu gintuelako.

GONTZAL LANDA




Gontzal, High Lands-etan malabarismoak egiten.



*“Fiordoaren
ondoan
zegoen gaztelu
zaharrak
arreta piztu
zigun”*

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Santa Marinako Toki-Argi zaharren egoitzan antolatutako Kontsumoaren gaineko jardunaldiek oso erantzun ona izan dute.

Automedikazioaren alde txarrak aztertu zituzten Toki-Argi egoitzan

IKER BARANDIARAN

Azken egunotan, Santa Marina auzoan kokatuta dagoen Toki-Argi zaharren egoitzan Kontsumoaren gaineko jardunaldi interesgarriak izan dituzte. Eta horrekin batera, formazio lantegiak eta esnekien enpresa batera bisita ere izan dituzte.

Toki-Argi zaharren egoitzako arduradunen esanetan, jardunaldi horiek oso erantzun ona izan dute: formazio lantegietan leku guztiak bete ziren, eta berbaldiak egin dituztenean ere aretoa lepo bete da. Gai hauek izan dituzte berba jardunaldiak: *Laguntza teknikoaren sorospena, Obrak eta etxeko konponketak, Sendagaien erabilera egokia eta Medikamentuak eta automedikazioa.*

AUTOMEDIKATZEAREN ARRISKUAK

Maiatzaren 2an, esaterako, Inmaculada Hernández sendagile bilbotarrak egin zuen berbaldia, *Medikamentuak eta automedikazioa* gai hartuta, eta gu berbaldi

hartan egon ginen. Berbaldi aretoa bete-beteta egon zen eta Inmaculada Hernández-ek oso aholku garrantzitsuak eman zituen.

Gehien hartzen diren sendagaiak izan zituen berba, eta analgesikoak eta antibiotikoak bereiztu zituen. Edozein sendagai hartu aurretik, familiako medi-

Medikuarekin berba egin

Inmaculadak azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela medikuak gaixoaren aurrekari medikoak jakitea, gaixoiari edozein sendagai agindu aurretik.

Gaixoak ere argi egin beharko lioke berba sendagileari, zer daukan eta zer hartzen duen azaldu. Gaixoak sendagileari edo botikakoari galdetu beharko dizkio dituen zalantzak.

kuarekin edo botikariekin berba egin beharra dagoela azpimarratu zuen. Era berean, automedikatzeko joera hedatuaren gaineko kezka erakutsi zuen. Izan ere, sendagaiak gaitz batzuk sendatzeko ahalmena duten arren, gorputzeko beste atal batzuei kalte egiten diete; esate baterako, gibelari eta giltzurrunei.

Are gehiago, kasu batzuetan -eta, batez ere, jende zaharrari dagokionez- gaixoak beste sendagai batzuk hartu beharko ditu, eta horiek medikamentu berriekin nahastean, batera ezinak izan daitezke. Hau da, biak nahastuz gero, osasunari kalte handia egin diezaiokete.

Are gehiago: hainbat kasutan, jendeak sendagaiak bere kasa hartzeko ohitura hartzen du. Horren ondorioz, benetako minbat duenean sendagai bera hartuz gero, ez dio mina ezertxo arinduko eta sendagai horren dosi edo kopuru handiagoa hartu beharrean egongo da, bere kalterako.

Horrelako aholkuak eta beste batzuk eman zituen Inmaculada Hernández sendagileak.

ABAROAKO BATZAR BERRIA

Abaroako batzar berria jendaurrean aurkeztu zuten

Apirilaren 5ean, Abaroako batzar nagusia egin zuten eta karguak aldatu zituzten. Dena dela, joan den astelehenera arte ezin izan zuten jendaurreko aurkezpenik egin. Hortaz, joan den astelehenean, Arrasateko komunikabideak batu, eta Juan Luis Lizarralde Abaroako presidente berriak eta elkarteko idazkari Jose Rivierek Abaroako batzarreko aurpegi berriak aurkeztu eta etorkizunerako helburuak azaldu zituzten.

Lehenik eta behin, aurreko batzarkideen aldaketa azaldu zuten. Hain zuzen ere, orduararteko presidente izan zen Rosalio Zubizarretak bere karguan hamabi urte bete zituen, eta Rosaliorekin lan egin zutenek ere urte dezente egin zituzten horretan. Ondorioz, kargu aldaketa merezia ei zeukat.

Besteak beste, Abaroako batzar berria honako hauek osatuko dute: Juan Luis Lizarralde, lehendakaria; Jose Riviere, idazkaria; eta Juan Iturbe, administraria. Gauzak horrela, batzarrean jarraitzen duen bakarra Jose Riviere da. Bestalde, esan beharra dago gero eta emakume gehiago dau-


dela Abaroako batzarrean.

Abaroako presidente Juan Luis Lizarraldek adierazi zuen gaur egun Abaroak 1.923 bazkide dituela eta horietatik, 1.123 emakumezkoak direla eta 819, gizonezkoak.

AISIALDIA ETA LAGUNTASUNA

Batzarra osatu dutenek Abaroaren gaineko dokumentazioa eta orain arte egindako lana eta funtzionamendua aztertzen dihardute, eta poliki-poliki beste zahar elkarte batzuekin eta Udalarekin harremanetan jartzeko asmoa erakutsi zuten. Orain arte Udalarekin izan duten harreman bakarra izan da Arrasateko zaharren egoitzetako tabernen salneurriak adosteko. Lizarralderen ustez, Udalak jarritako salneurriak ez dira euren gustukoak izan.

Abaroako batzarkideek, orain arte bezala, erretiratuena aisialdia bermatu gura dute, ekitaldiak antolatuta. Baina horrez gain, zaharren arazoak kontuan hartu gura dituzte. Esaterako, erretiratuak garraio publikoan beherapena egitea eskatuko dute, eta edozer gauzatarako babes eta laguntasuna eskaini gura diete.




IKER BARANDIARAN

Irudian, Juan Luis Lizarralde presidentea eta Jose Riviere idazkaria.

**TOLDOS
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxe: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu
inork baino hobeto**



**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



ARRASATE
Ibai Pie de Hierro
Maiatzaren 11n, urtebete.
Zorionak! Aita, ama eta
Amets.



ARRASATE
Ainhize Artetxe
Maiatzaren 13an, 4 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Amaia Balentziaga
Maiatzaren 9an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Onintza Barandiaran
Maiatzaren 14an, 24 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Ainhoa Apaolaza
Maiatzaren 22an, 12 urte.
Zorionak! Gurasoak.



ARRASATE
Ilargi Uribe
Maiatzaren 20an, 8 urte.
Zorionak! Baserrikoen eta
etxekeoen partetik.



ARRASATE
Aitor Fernández
Maiatzaren 3an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO
Oihan Bideburu
Maiatzaren 3an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
Naroa.



ARRASATE
Rosalía Ruiz
Maiatzaren 15ean, 88 urte.
Zorionak! Birbiloba eta
famiiliakoak.



ARRASATE
Beñat Iturriotz
Maiatzaren 10ean, 4 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Unai Arizmendiarrrieta
Maiatzaren 16an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Zigor Zeziaga
Maiatzaren 15ean, 25 urte.
Zorionak, Txetxi! T.M.T.



ARRASATE
Ainhoa Delgado
Maiatzaren 13an, 7 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Iker Agirre
Maiatzaren 13an, 10 urte.
Mila kilo zorion, etxekeoen
partetik.



ARRASATE
Mikel Arizmendiarrrieta
Maiatzaren 15ean, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Hernández
Maiatzaren 16an, 14 urte.
Zorionak! Aita, ama eta
Markel.



ARRASATE
Mikel Arizmendiarrrieta
Maiatzaren 15ean, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Ander Gómez
Maiatzaren 17an, 2 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Mikel Mondragón
Maiatzaren 13an, 25 urte.
Zorionak, Mon!!! T.M.T.



ARRASATE
Gorka Madinabeitia
Maiatzaren 12an, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Askoi maite
duten gurasoak.



ARRASATE
Xabier Murillo
Maiatzaren 14an, 4 urte.
Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Amaia Balentziaga
Maiatzaren 9an, urtebe-
tetzeari. Zorionak! Lourdes
eta Jesus.



ARRASATE
Lorea Berezibar
Maiatzaren 11n, 4 urte.
Zorionak! Aitabito eta ama-
txo.



ARRASATE
Agustín Berezibar
Maiatzaren 10ean, 4 urte.
Zorionak! Lorea eta ama-
txo.



ARRASATE
Iñigo Gutiérrez
Maiatzaren 13an, urtebe-
tetzeari. Zorionak, artista!
Koadrilakoak.



ARRASATE
David Romero
Apirilaren 30ean, 19 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Oier Sasiain
Maiatzaren 28an, 5 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Mikel Etxegia
Maiatzaren 8an, 4 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Unai Sulnaga
Maiatzaren 7an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Sonia Alonso
Maiatzaren 2an, 6 urte.
Zorionak! Umezaintzako
laguntxoaren partetik.

Adi!

Hurrengo zenbakian, maiatzaren 11tik
24ra bitarteko zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

Argazkiak martitzenera arte jasoko
dira ARRASATE PRESSko egoitzan.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko maiatzaren 10a / 26. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Oletako saneamendu lanak uda aurretik bukatuta egotea espero dute

UBANE MADERA

Oleta auzoan egiten ari diren saneamendua berritzeko eta gasa sartzeko lanak uda baino lehen bukatuta egongo direla espero du Construcciones Olabarria enpresak. Eta lan horiek egin eta gero, Oletako bide nagusia zabaltzeko lanak egiten hasiko dira.

Iaz, urrian, hasi ziren Oletako lanak egiten. Saneamendu sarea berritzen eta gasa sartzen, hain zuzen ere. Eta lanak dezente aurreratuta doaz dagoeneko. Sergio Fernández-ek, lanotako arduradunetako batek, adierazi digunez, uda baino lehen bukatzea espero dute. Oro har, Oletako baserrietako ur zikinak batzeko kolektoreak eta ur horiek garbitzeko araztegiak ipintzen ari dira, urak garbitzeko bost sistema, hain justu ere. Eta gura duten baserrietaraino gasa helarazteko azpiegiturak ere ipintzen ari dira.

Horrez gain, eta lan horiek aprobeztatuz, etorkizunean sor daitezkeen beharrei aurre egiteko, hodiak ere sartzen ari dira (zuntz optikorako...). Lan horiek egiteko zehaztu duten aurrekon-



UBANE MADERA

Oleta erreka albo bietan dauden baserrien ur zikinak batzeko kolektoreak ipintzen ari dira, besteak beste.

tua 640 mila euro pasatxokoa da.

BIDEA ZABALTZEKO LANAK

Behin lan horiek bukatuta, Oletako bide nagusia zabaltzeko

lanak egiten hasiko direla adierazi digu Sergio Fernández-ek. Hain zuzen ere, orain, Arabako Foru Aldundia bidea zabaltzeko proiektua aztertzen ari da, diru-

laguntzak emateko. Errepidea zabaltzearekin batera, zenbait baserrietara heltzeko bideak ere zolatuko dituzte. Ia 4.000 euroko aurrekontua zehaztu dute.

Oleta auzoan batutako ur zikinak garbitzeko bost sistema ipiniko dituzte

Etorkizunean sor daitezkeen beharrei (telekomunikazioak) aurre egiteko hodiak ere sartzen ari dira

Lanen lehenengo zatia bukatutakoan, auzoko errepide nagusia zabaltzen hasiko dira

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer igartzen duzu faltan Aramaion?



MIKEL SERRATO
Ikaslea

Igerilekua falta zaigu, kanpokoa eta barrukoa; horrela, negurako eta udarako izango genuke. Nik pilotaleku ondoan egingo nuke igerilekua.



MIKEL MENDIKUTE
Ikaslea

Igerilekua gura dugu, bai eta 'U' itxurako plataforma ere, patinetarekin ibiltzeko; ping-pong gunearen ondoan ipin daiteke plataforma hori.



ARANE ALTUNA
Ikaslea

Ikastolan seigarren maila arteko ikasketak izan beharrean, hortik aurrerakoak ere izatea. Igerilekua eta 'U' itxurako plataforma ere behar ditugu.



AMAIA KORTABARRIA
Ikaslea

Aramaiok futbol zelaia edukitzea gurako nukerik, partiduak ikustera joateko, herriko taldeak animatzera joateko, jolas-teko, eta abar.



JONE URZURIAGA
Ikaslea

Parkea hobeto ipintzea gurako nukerik; kulunka gutxi ditu eta daudenak nahiko kaskar daude, gauza batzuk apurtuta daude...

LABUR

Uztaileko udalekuetan parte hartzeko

Uztaileko udalekuetan parte hartzeko izena emateko epea datorren maiatzaren 17an, egubakoitzean, bukatuko da. Interesa duten umeek eta begiraleek Udalean edo kultura etxean eman beharko dute izena. Begirale izateko betebeharrak bakarrik izango da 17 urte baino gehiago izatea. Edozelaian ere, beste baldintza batzuk ere baloratuko dituzte. Udalekuak uztailearen 10ean hasi eta 24ra artekoak izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Auzokoek autobusa izango dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Bukatzeaz dago Aramaioko neska-mutikoendako Areto Futbol Txapelketa. Kadete mailako mutilei pare bat partidu besterik ez zaie gelditzen; eta neskek kanporaketetan buru-belarri ari dira. Kanporaketak gaudituz gero, aurrera segituko dute; baina ez dute batere bide samurra, aurrez aurre izan behar dituzten talde biak mutikoez osatutakoak dira-eta. Edozelan ere, zapatuan bi partidu jokatu dira Aramaion: Mutikoez El Campillo taldearen kontra jokatu dute, 10:30ean; eta neskek, berriz, ordubete geroago izango dute hitzordua, Langraitzeko Menesianos taldearen kontra.

ZINEMA

Oraingo domekan, aurten oso arrakasta handia lortu duen *Harry Potter* filma emango dute kultura etxean, 17:00etatik aurrera.

HERRI URRATS

Domekan, Herri Urrats ospatuko dute Senperen, eta Aramaiotik autobusa irtengo da Senperera joateko. Sei euro balio du. 09:00etan irtengo da parkeitik eta 19:00etan itzuliko da Senperetik.

SENDABELARREN IKASTAROA

Maiatzaren 15ean, eguaztean, bukatuko da Sendabelarren ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea. Interesa duenak udaletxera jo beharko du. Ikastaroa maiatzaren 18an hasiko da eta uztailearen 20an bukatu. Guztira, bost jardunaldi izango dira, zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.

GIZARTEA

Zuberoan sei ehun lanpostu sortzen laguntzeko, auzolana abiatu du Udalbiltzak

Zuberoaren egoera larria dela-eta, Udalbiltzak kanpaina berezi bati ekin dio: Zuberoarendako milioi bat euro eskuratzea, gero, han, 600 lanpostu sortzen laguntzeko. Horretarako, Euskal Herriko zenbait herritan laguntza-taldeak eratu dituzte. Baita Aramaion ere, orain dela bizpahiru aste. Taldearen helburu nagusiak bi dira: Zuberoaren egoeraren berri ematea eta Aramaiori dagokion diru kopurua batzea: 1.500 euro. Horretarako, laguntza-txartelak saltzen hasi da Aramaioko taldea. Era berean, eta herriko jaiei begira, Zuberoako produktuen saltzaile batzuk Aramaiora ekartzeko asmoa ere badute, baita hango bertsolari edo abeslariren bat ere. Bestalde, Aramaioko Euskadiko Kutxan kontu korrante bat zabaldu dute laguntza eman gura dutenendako. Orain arte, 400-500 euro batu dituzte; hortaz, oraindik, jendearen laguntza handia behar da.

ZUBEROTARREKIN BAT AUZOLANEAN
Helburua: 1.000.000 €

Xiberoa garatzen! egitasmoa

Biba Xiberon!

BOTEPRONTOAN/ Kontxi Kortabarria · Altzaga auzoko bizilaguna eta alkate ohia

“Etxe gehiago eginez gero, jende gaztea etorriko da eta auzoari beste bizitza mota bat emango dio”

Herriko auzoen gainbegiratuarekin bukatzeko Altzaga besterik ez zaigu falta, eta haraxe jo dugu oraingoan. Kontxi Kortabarriarekin berba egin dugu auzoaren berri jakiteko. Auzoko alkate izandakoa da Kontxi, eta auzoari izena ematen dion baserrian bizi da, *Altzaga Gainekoa*-n:

Berriro ere izango zinateke auzo-alkate?

Auzokideek baietz esanez gero, bai, bestela, ez. (Barreak) **Azkoagaren barruan egon arren, elizatek bananduta dago Altzaga auzoa; hortaz, nondik nora iristen da Altzaga auzoa bera?** Goitik hasita *Sarri* baserriarekin hasten da, Altzaga auzoa bera hartzen du, eta behean *Goiko Induspe* eta *Beheko Induspe* hartzen ditu. Auzo zabala da.

Zenbat etxe/baserri daude?

Bederatzi baserri daude eta beste bat edo bi egiten ari dira; hori oso ondo dago, horrela jende gehiago egongo garelako auzoan. Apurtxo bat aparte gaude, baina ondo.

Hortaz, gustura hartuko duzue jendea?

Bai. Orain dela hiru bat urte egin zuten etxe bat eta orain



beste bat edo bi egingo dituzte. Horrela, jende gaztea etorriko da eta auzoari beste bizitza mota bat emango dio. Adibidez, nire adineko jenderik ia ez da egon, ondorioz, beti aparte ibili gara: Arrasatera ikastolara, auzoan ez lagunik eta ez ezer...

Zelan konpontzen zarete Azkoagako auzokideekin?

Ondo konpontzen gara. Azkoagara joaten gara altzagarrok. Ez dugu askotan elkar ikusten, bereziki jende gazteak, bakoitzak bere bizimodu egiten duelako; baina gurasoek-eta badute harremana.

Elkartea, eliza...

Horretarako ere Azkoagara jotzen dugu.

Auzoan baduzue pertsona/leku ezagunik edo antzinakorik?

Martin, Altzagako Martin hemengoa da. Eta bestalde, geure baserri hau ere oso

antzinakoa da, 500-600 bat urte izango dituela uste dut.

Zer eskatuko zenioke Udalarari auzoarendako?

Saneamenduok-eta eginda daude, gasa ere badugu... Hori oso gauza inportantea izan da. Nik interes handia nuen hori egiteko, eta egin zen. Bestalde, postariarena ere konpondu dugu. Lehen, astean behin etortzen zen, baina orain, ia egunero etortzen da, hortaz...

Aspaldi eskatu nuen gauza bat da auzoan tximistorratza ipintzea, baina uste dut Udala ibiliko dela zerbaitean...

Kanpotik datorren bati auzoko zer erakutsiko zenioke?

Ingurutik buelta bat ematera eramango nuke lehenengo, gero San Adriango ermita ikustera ere joango ginatke eta etxe bakoitzeko zerbait erakutsiko nioke. Geure etxeak, adibidez, arku handia du eta jendea hori ikustera etortzen da...

Eta zelan bizi zarete Altzagan?

Ondo. Gaur egun, norberak bere automobila dauka, hortaz... Era berean, orain komunikazio gehitsuago dago; Udalak autobusekin lotutako hitzarmenen bat lortu du eta orain komunikazio hobea dugu; baina lehen nahiko bakarrik geunden.

HERRIKO AUZOETAN

AZKOAGA I

Etimologoez esanahi posible batzuk eman dizkiote Azkoagari: haitzen lekua, azkonarren lekua, ezki gunea... *Azkoaga* baserria berritzeko lanak egin zituztenez, ikusi zuten haitzen gainean zegoela eraikita, eta litekeena da hortik etortzea izena. Baserri horren eta beste batzuen gainean Elizako Liburuen baino lehenagoko datuak ditugu (1551. urtea). Ordurako, auzoko baserri gehienak eraikita zeuden; horrek esan gura du baserrietako asko lehenagokoak direla. Honako datuak ditugu:

— *Uriburu* edo *Urugu*, XVI. mendé bukaeran eraiki zuten; *Etxebarria-Elorriaga* baserriak bigarren etxe moduan eraikitakoa;

— *Salturrialde* edo *Salturralde*; Salturriak eraiki zuen bigarren etxebizitza moduan, *Uriburu*-koaren garaian;

— *Zaldua* edo *Zabaldu*, XVII. mendearen hasierakoa;

— *Azkoaga-txiki* edo *Dukiena*; Azkoagako bigarren etxebizitza moduan eraiki zuten. 1754. urtean existitzen zen dagoeneko.

‘Aramaioko Ibarren iragana eta oraina’. J.M. Elejalde Plazaola

“Ondo konpontzen gara Azkoagakoekin; hara jotzen dugu, baita elizara eta elkartera ere”

“Zera eskatu nuen aspaldi: Altzaga auzoan tximistorratza ipintzea”

ERRETRATUZAHARRA

Maisutzako eta Ofizialtzako ikasleen jaia

Bihar, zapatua, inguruotako taldetxo batek Donostia aldera joko du, ospakizun berezi baten parte hartzeko. Izan ere, Eskola Profesionalean 1961-62. ikasturtean Ofizialtza eta 1963-64an Maisutzako bukatu zuten ikasle ohiendako jaia antolatu dute Gipuzkoako hiriburuan. Eskoriatzatik, Aretxabaletatik, Debatik eta Arrasateetik irtengo dira Donostiara joateko autobusak.

Eta ospakizun hori aprobetxatuz, geuk 1964. urteko ikasturteko Maisutzako ikasleen argazki hauxe ipini dugu oraingo asteko alean. Honakoak dira argazkian azaltzen diren gure ikasleak, tente, lehenengo ilaran eta ezkerretik hasita: Jesus Osinaga, Lozano, Ansuategi, Joxe Ugarte, Urrutia, Jose Antonio Zubizarreta, Lekunberri, Jose Mari Berridi, Juan Mari Trojaola, Sandro Arregi, Luis Mari Berezibar, Victor Javier Álvarez, Garro, Javier Trojaola, Jesus Sierra eta Pedro Ibaibarriaga.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik hasita honakoak ageri dira argazkian:



Juan Mari Iturbe, Legorburu, Jose Cruz Urzelai, Xabier Guridi, Angel Bengoetxea, Patxi Yarza, Antonio Lopez, Cebrián, Imanol Pagoaga Peixoto, Garitano, Ramon Urrizalki, Anton Elorza, Altuna, Andres Eizmendia, Jose Mari Zubiaga, Romualdo

Derteano eta Roman Aranburuzabala. Eta behean, eserita daudenak honakoak dira, ezkerretik hasita: Jesus Mari Herrasti, Sotero Olabe, Ocejo, Xabier Furundarena, Ajuriagerra, Juan Antonio Rodríguez, Fernando Lucas, Jose Luis Osinaga, Felipe Domínguez,

Juan López de Bergara, ezezaguna, Villalabeitia eta Gainza.

Argazkia: Jose Andres Sandro Arregi
Informazioa: Jose Andres Sandro Arregi
Urtea: 1963-64. ikasturtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Seber Altube plaza eta Portaloia

Itxura polita dauka gaur egun Seber Altubek, baina garai hartan zirkulazio txikia zegoen eta autoek ez zuten traba handirik egiten. Azken urteetan, ordea, errepide horretatik izaten zen autoen joan-etorria etengabea zen, eta plazak lasaitu ederra hartu du orain. Udan igarri egingo da orain arte Seber Altuben egon diren zuhaitzen falta. Batez ere, ematen zuten itzalagatik.



≈ 1940

Seber Altube plazan dauden etxebizitzak ere dezente aldatu dira. Kanpoko aldeak berrituta eta behealdean, komertzioak.



2002

Seber Altube plaza eta Portaloia oinezkoendako gunek dira gaur egun. Zona horrek asko eskertu du hori, baina izan da eztabaidaririk.

ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak


Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

OREKAN DATZA EDERTASUNA



AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK

1. Diagnostikoa:

diagnostiko pertsonalizatua egingo dugu, arazoaren iturburua zein den jakiteko eta, horrela, arazo hori konpondu ahal izateko.

2. Tratamendua:

Tratamendu lokala: zitokosmetika.
Tratamendu orokorra: balnoterapia, termosaua, drainadura linfatikoa, aparatologia, entzima-osagarriak.

3. Kontrola eta jarraipena

ORDAINTZEKO ERA

Aurrez, % 10eko deskontuarekin.
Sei hilabetean, interes barik.

ESKATU AURREKONTUA
INONGO KONPROMISO BARIK.

LIRAINEN, ZERBITZU HUTSA BAINO GEHIAGO ESKAINIKO DIZUGU

KIRURGIA ESTETIKOA

Mediku estetizista

- Liposukzioak.
- Bularren handitze eta txikitzea
- Laser bidezko depilazioa
- Dietak / Mesoterapia

Lehen



Orain



MIKROPIGMENTAZIOA Minik gabekoa

SOLARIUM TXARTELA
Zutikako solariuma
Etzandako solariuma duxarekin.

10 saio + 1 = 54'09 euro


LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 52 17

DOTAKON

Likidazio osoa

OTALORA I • ARRASATE



%70 erainoko deskontuak



opari zoragarriak eraman itzazu

oakley metala:
oakley giltzatak
esklusiboa opari

oakley pasta:
oakley pegatina
esklusiboak opari

eta gainera...



oakley
erloju
baten
zozketan
sartuko
zara

OAKLEY

esklusiban zuretzat

MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA
Tel. 943 51 78 11